

#41 / 2023 UZTAILA

artelka



**TURISMOA,
INDIFERENTZIA
SOZIALA**

GEDAR

Turismoa merkantzia bilakatutako lan-indarraren mugikortasun abstraktua da, non batera edo bestera joateak ez duen inporta eta garrantzia duen bakarra bidaiatzea bera baita, hau da, batera eta bestera joatea. Helmugarekiko indiferentzia hori, alegia, bidaiaren eduki zehatzarekiko indiferentzia, lanarekiko eta gizartearekiko indiferentziaren beste aldea baino ez da, hau da, gure inguru sozialarekiko indiferentziaren berbera.

Eduki

6

10

32

46

EDITORIALA

Arteka

**Turistak gara
gure herrian**

ERREPORTAJEA

Arteka

**Turismoa lehen
eta orain**

ERREPORTAJEA

Jose Castillo

**Lurralde turistikoa:
turismotik bizitzetik
arrakastagatik
hiltzera**

HISTORIA

ERREPORTAJEA

Julen Cambra

**Etorkizunik gabeko
hiria: *tough city*
posmoderno**

Turistak gara gure herrian

Editoriala

Azken urteotan, udarekin batera etorri dira turismoaren inguruko hausnarketak eta iritziak. Gehienak lausoak eta, turismoa bezala, azalekoak. Azalekoak turismoa ezaugarritzeko moduagatik, baina baita turismoa udarekin eta estetika jakin batekin lotzeagatik ere. Ez da ausazkoa, guk ere, garai hau hautatu izana turismoaz hitz egiteko: ez horrenbeste harekin lotzen dugulako turismoa, baizik eta garai honek uzten duelako agerian turismoari atxikitzen zaizkion ezaugarriak gizarte kapitalistari dagozkion ezaugarriak direla, eta ez turistari soilik. Eta turistari soilik badagozkio, orduan, nola esan: turistak gara gure herrian.

Mozkorra, bertako kulturaren ezjakina eta harekiko desinteresatua, lekuan lekuko ekosistemarekiko errespeturik gabea... Nekez esan genezake turistaren ezaugarri omen diren horiek ez direnik turista ez omen den horren ezaugarriak. Are gehiago, turismoaren bereizgarri nagusia dena, hau da, aisialdi-arrazoiak medio beste herri edo herrialde batera denbora tarte jakin eta orokorrean labur batez bidaiatzea, gizarte kapitalistan gero eta bereizezino egiten da bere dinamikak sustatzen duen eguneroko normalizatutik.

Turismoaren bereizgarri nagusiena dena, hau da, aisialdi-arrazoiak medio beste herri edo herrialde batera denbora tarte jakin eta orokorrean labor batez bidaiatzea, gizarte kapitalistan gero eta bereizezinago egiten da bere dinamikak sustatzen duen eguneroko normalizatutik

Akaso turista soilik da norbere kulturara txertatu ezin den hori. Baina turismoaren kultura delakoak gero eta antza handiagoa du norberaren kulturarekin. Inguru naturalarekiko eta sozialarekiko interes falta gero eta nabarmenagoa da espazio zehatz batean bizi direnengan ere. Akaso turistak, bere jarrera indibidualistan, topo egiten du gure indibidualismoarekin, eta hori da kezkatzen gaituena. Eta jarrera indibidualetan baldin badatza inguruarekiko balorazioa, orduan, zer esan bere testuinguruarekiko axolagabekeriaz bizi den sedentarioaz, nomada batek interes handiagoa erakutsi baldin badu tokiko historiarekiko eta kulturarekiko.

Zaila da, ez bairik gabe, turismoaren fenomeno ezaugarritzea, hori irizpide gutxiko balorazio subjektiboan bidez gauzatu nahi bada. Turismoa egitea ez da bidaiatzea, lekuz aldatzearen zentzuan. Bistan denez, ez zaio turista deitzen migratzaileari, edota lan-kontuak medio kanpora joan behar duenari, denbora-tarte labor batez bada ere. Turista ez da postaletan irudikatu nahi izan duten hori ere, eta bere itxuraz baliatuta ere ezin zaio kritikarik egin, balorazio subjektiboetan erori gabe. Nekez helgeniezaioke turismoaren fenomenoari, gure abiapuntua turista bada, eta bera definitzeko erabiltzen ditugun adjektibo guztiz zalantzarriak, guztiz estropagarriak direnak gure inguru hurbilera eta, gainera, abiapuntu bikainak direnak fikziozko komunitate bat eraikitzeko, zeinaren ezaugarri nagusia sektarismoa baino ezin daitekeen izan.

Horretan aritu da azken udetan gazteria sozialdemokrata: performanceak egiten, turismoa egiten zuten bitartean turistak seinalatzen eta, ondoren, baina modu subordinatu batean, turismoarekin lotutako ekonomiarekin identifikatzen zituzten negozioak seinalatzen. Burgesa gaiztoa baldin bada, turistek behartu dutelako da; lanean esplotazioa baldin badago, turistek behar dutelako da. *Tourist go home*.

Gauzak alderantziz dira, ordea. Zerbitzuetan eta aisialdian oinarritutako ekonomia bat garatu delako existitzen dira turistak, esfera horretako kontsumitzaile berezi bezala. Baina halako ekonomia batek ondorio nabarmenagoak ditu: proletalgoaren elkartzeko eskubide eta aukeren galera, haustura soziala, komunitate politikoen desegitea, indibidualizazioa eta kontsumo sareekiko subordinazioa... Eta horri guztiari lotutako kultura bat non oporrak –eta kontsumoa– bilakatu diren lanetik eta esplotaziotik ihes egiteko aukera bakarra.

Turista batek ibilbide bat zehazten du eta bere bisita toki estetikoetara mugatzen du, bai, eraikinak eta fatxadak bisitatzen ditu eta bertako historian interesatzen da, bi orduko «free tour» batean. Baina hori ere ez da bereizgarri, gure eguneroko aisialdia ere hala definienezakeelako, hau da, gozamen estetiko moduan. Eta sakoneko zerbait baldin badago, hori tabernaren barrenean bilatu behar da

Zentzu horretan, turismo-ekonomia batez mintza gaitezke, hau da, aisialdian oinarritutako bidaien beharretara moldatutako ekonomiaz. Baina, esan bezala, hori ez da gure egunerokoan, aisialdian eta lanorduetatik kanpo, egiten dugun horrekiko desberdina; ez formari dagokionez behintzat. Jakina, berdintasun horren barnean berezitasunak egon badaude, ala ez: turista batek ibilbide bat zehazten du eta bere bisita toki estetikoetara mugatzen du, bai, eraikinak eta fatxadak bisitatzen ditu eta bertako historian interesatzen da, bi orduko *free tour* batean. Baina hori ere ez da bereizgarri, gure eguneroko aisialdia ere hala definienezakeelako, hau da, gozamen estetiko moduan. Eta sakoneko zerbait baldin badago, hori tabernaren barrenean bilatu behar da.

Egia da, gure ekonomia moldatu egin da zerbitzu horietara, eta horrek haustura sozial eta politiko nabarmenak eragin ditu. Prozesu horrek berberak bihurtu du bisitaria edo bidaiaria turista. Hain zuzen ere, egiten diren bidaiak ez dutelako norberaren indibidualtasuna asetzeari beste helbururik; edo aukerarik. Izan ere, soldatapeko lanean oinarritutako gizarte kapitalistan, ehun sozial osoa lanaren arabera artikulatzen da, modu autoritarioan antolatzen den lanarena, eta kontsumoa indibidualtasuna baieztatze bide bakarra bihurtzen da. Kontsumoak funtzio hori bete dezan, ordea, ezinbestekoa da lana esplotazioan oinarritua izatea, hau da, bere antolaketa modua guztiz burokratiko izatea eta, horregatik, antolaketa sozial kontzienterako ekoizpen-sare sozialak guztiz desegituratuta egotea, noraino eta bidaiak bat egitean, bidaiariari turista izatea baino ez zaion geratzen, komunitate errealek –komunistak– existitzen ez direlako eta kanpokotasuna, ezinbestez, fikziozko komunitate batekiko irudikatzen delako.

***Agian gure inguruan arrotz izateari
utziko diogu, harekiko arduraz
jardungo dugulako etorkizuneko
gizarte komunistan. Hor ez da
turistarik egongo, ezta hemengoa ez
denik ere, sozializazio-baliabideak
denon esku egongo direlako,
eta bidaiatzea integraziorako
aukera bat izango delako***

Ekoi-zen-komunitate errealean existentzia ezak, jakina, turismoaren oinarri den lanaren eta kontsumoaren arteko bereizketa dakar. Gu guztion arteko erlazio-aukerak diruan kondentsatzen diren gizarte kapitalistan, elkar erlazioa dirua bitarteko duen elkartruke indibidual eta indibidualistaren momentuan gauzatzen da, eta horrek esan nahi du gizartea bera, eta kultura, norbanakoen arteko elkar harreman-antze indibidual eta istripuzkoen emaitza direla.

Bada, turismoa merkantzia bilakatutako lan-indarraren mugikortasun abstraktua da, non batera edo bestera joateak ez duen inporta eta garrantzia duen bakarra bidaiatzea bera baita, hau da, batera eta bestera joatea. Helmugarekiko indiferentzia hori, alegia, bidaiaren eduki zehatzarekiko indiferentzia, lanarekiko eta gizartearekiko indiferentziaren beste aldea baino ez da, hau da, gure inguru sozia-
lerekiko indiferentziaren berbera.

Turista izatea ez da, beraz, aukeratzen den gauza bat; akaso diruak ematen duen aukera bat baino ez da. Eta bere ezaugarria, nomada gisa, inguruarekiko desinteresatu eta ezjakin gisa, gure ezaugarria ere bada, gure inguruarekiko eta ekosistema sozia-
lerekiko indiferentzia osoa, fikziozko komunitate-baina ez eraginik gabekoa- baten sorrerarekin estaltzen dena, baina oinarrian gorroto irrazionala duena, bestearekiko gorrotoa, bere jarrerak gu geu jartzen gaituelako ispiluaren aurrean. Agian gure inguruan arrotz izateari utziko diogu, harekiko arduraz jardungo dugulako etorkizuneko gizarte komunistan. Hor ez da turistarik egongo, ezta hemengoa ez denik ere, sozializazio-baliabideak denon esku egongo direlako, eta bidaiatzea integraziorako aukera bat izango delako. ●

ERREPORTAJEA

TURISMOA LEHEN ETA ORAIN

Testua — **Arteka**

Irudietan, 1954an Asturiasen
sortutako Perloro *opor hiria*

10

An aerial black and white photograph of a coastal town in Asturias, Spain, from 1954. The town is built on a hillside overlooking the sea. A prominent curved road winds through the residential area, which consists of many small, simple houses. In the foreground, there is a large, curved building, possibly a school or a public building. The overall scene depicts a typical coastal town of that era.

Kapitalismoaren aurretik turismoa existitzen zela baieztatzea oso eztabaidagarria da.

Bidaiatze hutsari turismo baderitzogu, esan genezake Paleolitoko gizakiek ere egiten zutela turismoa.

Aldiz, ulertzen badugu bidaiaria eta bidaiatzearen esperientzia bera merkantzia bilakatzen direnean sortzen dela turismoa, berezkoa duen izaera kapitalista aztertu beharko genuke. Erreportaje honek, beraz, turismoaren bilakaera historikoaren gaineko ohar batzuk eskainiko ditu, eta arreta berezia jarriko du haren klase konposizioan eta historiako garai bakoitzean izandako funtzio sozial zehatzetan.



Logika horren baitan, turismoaren garapen historikoa hiru fasetan aztertuko dugu: 1) eliteen turismoa (XVIII-XIX. mendeak), 2) masen turismoa (XX. mendea) eta 3) turismoa krisian (XXI. mendea). Oso ohikoa da turismoari egindako kritiken aurrean sententzia sinplistekin ixtea eztabaida: «Denok egiten dugu turismoa, betidanik egon da eta betiko egonen da». Bada, historiak gisa horretako aurreiritziak gezurtatzen dituela ikusiko dugu, bi arrazoirengatik nagusiki: 1) pertsona orok ez dugulako turismoa egiteko aukera berdintasun errealik, ez lehen eta ez orain, eta 2) gaur egun turismoa deritzogun jarduera hori berri samarra eta prozesu historiko jakin baten emaitza delako.

TURISMOAREN EZAUGARRIAK EZTABAIDAGAI

Turismoaren kontzeptu moderno, gaur egun ulertzen dugun gisara (aisialdian eta plazeragatik bidaiatzekoa), kapitalismoaren asmakuntza bat da, eta Industria Iraultzaren garaian sortu zen. Lehenago, baziren bestelako funtzio sozialak zituzten bidaiatzeko eta lekualdatzeko beste forma batzuk. Aurreko bidaiak horiek askotariko arrazoiak zituzten: merkataritza aurrekapitalista, sinesmen erlijiosoak, harreman diplomatiko edo militarrek eta abar. Turismoa bera helburu gisara ulertuta kontsumitzaileen ikuspuntutik, zein merkatuko ondasun gisara ulertuta kapitalisten ikuspuntutik, duela bi mende inguru agertu zen. Zenbaiten iritziz, praktika eta jarduera aurremodernoetako batzuk turismoaren aitzindaritzat har genitzake. Horren adibide dira aspaldian existitu diren erromesaldiak: Donejakue Bidea Galizian edo *Hajj* erromesaldia Mekara, esaterako. Hezkuntzarekin lotutako arrazoiengatik egindako bidaiak ere baziren, besteak beste, Antzinako Grezian eta Erroman gazte aristokratik egiten zituzten ikasketa bidaiak.

Hori dela eta, kapitalismoaren aurreko turismoaren existentziaren gaineko eztabaidak turismoaren definitzean eta hark barne hartzen dituen jarduera eta motibazioen zehaztean jarri du. Zenbait adituren iritziz, turismoa, fenomeno sozial eta ekonomiko jakin baten gisara ulertuta eta historikoki determinatuta, ez zen kapitalismo industrialaren eta modernitatearen garapenaren aurretik existitzen. Beste akademiko batzuek diote gaur egun ezagutzen ditugun ezaugarri eta egitura moderno guztiak zituen sistema turistiko osatu bat ez bazegoen ere, bidaiatzeko praktika eta elementu batzuk turismoaren aitzindaritzat har daitezkeela.

Argi dago, beraz, kapitalismoaren aurretik turismorik ba ote zen eztabaida korapilatsua dela, eta erabilitako definizio eta ikuspuntuen arabera. Hala ere, adituen gehiengoak, izan burgesak zein kritiko iraultzaileak, bat egiten du ideia honekin: turismoa, gaur egun ezagutzen dugun moduan, fenomeno kapitalista bat da, nahiz eta jarduera eta praktika aurremoderno batzuek antzekotasun edo eraginak izan badituzten oraingo turismoaren garapenean. Bestela esanda, gizakiak betidanik bidaiatu du, baina ez du beti turismoa egin.

Gizakiak betidanik bidaiatu du, baina ez du beti turismoa egin

Gure analisirako metodoari dagokionez, azterketa historiko marxistak bat datoz ikuspuntu horrekin. Marxistak azpimarratu du ekoizpen-harreman kapitalistek eman ziotela bide eta forma oraingo turismoari. Hala, ezin dugu turismoa ulertu egungo gizartea moldatu duten dinamika ekonomiko eta sozial orokorretatik at. Turismoa integratuta dago helburu menderaezin gisara aberastasunaren metaketa pribatua duen ekoizpen-modu jakin honetan. Ondorioz, analisi marxistek turismoa eta kapital metaketaren arteko harremana aztertzeko dute, eta nola azken horrek klase desberdintasun sozial eta ekonomikoak dituen oinarrian.



ELITEEN TURISMOA: GRAND TOUR DELAKOA ETA BAINUETXEAK

Etimologiak turismoaren jatorria-
ren eta lehenengo formaren zantzuak
iradokitzen dizkigu. «Turismo» hitza
frantsesetik dator, *tourisme*; eta hori,
berriz, *tour* hitzetik eratorria da, eta
«bidaia» esan nahi du. Erroaren esa-
nahiarekin lotutako jarduera multzo
edo kategoria bat adierazten duten
izenak sortzeko erabiltzen da *-isme*
atzizkia. Kasu honetan, plazeragatik
edo negozioengatik bidaiatzen duten
pertsonek egiten duten jarduera mul-
tzoa adierazten du *tourisme* hitzak.
Tour hitza latinetik dator, *tornare*, eta
«buelta eman» esan nahi du. Termi-
noa XVIII. mendean sortu bazen ere,
XIX. mendeko bigarren erditik aurrera
hasi zen hedatzen. Baina, garai hartan
nork bidaiatzen zuen plazeragatik edo
negozioengatik? Aristokrata ingelesak
izan ziren Europan zehar plazeragatik
edo ikasketengatik bidaiatzen lehenak.
Bidaiatzeko modu horrek *Grand Tour*
izena hartu zuen: Europako aristokra-
ta gazteek, britaniarrek batez ere, hez-
kuntza- eta kultura-bidaia egiten zu-
ten, herrialde anitzetan zehar ibili eta
tokian tokiko artea, historia eta kultu-
ra ezagutzeko. Gisa horretako bidaiak
bereizketa sozialaren seinale bilakatu
ziren, eta ezagutza eta eskarmentua
lortzeko bide berri bat.

Hala ere, turismoaren loraldia fak-
tore jakin batzuen ondorio izan zen:
batetik, garraibideetan hobekuntzak
egon ziren, esaterako trenei eta lurru-
nontzei zegokienez, eta beraz, urruna-
go bidaiatzea ahalbidetu zuten, askoz
azkarrago, erosoago eta merkeago gai-
nera. Bestetik, urbanizazio prozesua
aurrera egiten ari zen, eta burgesiak
geroz eta denbora libre gehiago zuen;
horren ondorioz, turismoak gora egin
zuen, aisialdirako eta mundua esplora-
tzeko bitarteko gisara. Zentzu horret-
an, esan dezakegu turismo terminoa
hedatu zela dibertitzeko, terapiarako,
kulturarako edo kirolerako helburue-
kin bidaiatzeko jarduna deskribatzeko,
betiere agertu berri zen klase alfer ha-
ren interesen mesederako, burgesiaren
mesederako, alegia.

XIX. mendeko bigarren erditik au-
rrera, turismoa oraindik klase burges
eta aristokratentzat zen, bidaiatzea ga-
restia zelako, eta sortu berria zen pro-
letariotzak ez zuen denbora eta dirua
behar zirelako horretarako. Gainera,
ez turismo sektorea eta ez merkatua
ez zeuden nahikoa garatuta bestelako
bezeroak jasotzeko. Negua bainuetxee-
tan edo Europako hiri ezagunenak bi-
sitzatzen ematen zuten aberatsak ziren
turisten gehiengoa. Halaber, baliabide
finantzario bereziki altuak zituztenen
artean ohikoak ziren leku exotikoetara
egindako esplorazio edo ehiza bidaiak,
Afrikara edo Ekialde Urrunera adibi-
dez. Gainera, turista batzuk urrutiko
lekuetan aurkikuntzak eta ikerkuntzak
egiteko helburuarekin bidaiatzen zuten
zientzialari eta esploratzaileak ziren.

Esan dezakegu turismo terminoa hedatu zela dibertitzeko, terapiarako, kulturarako edo kirolerako helburuekin bidaiatzeko jarduna deskribatzeko

XIX. mendeko turismoaren beste alderdietako bat bainuena izan zen. Garai hartan, itsasbazterretan eta ur termaletan onura terapeutikoak eta dibertimendua bilatzen zituzten aristokrata eta burgesak oso sarri joaten ziren bainuetxeetara eta hondartzetara. Klase altuak tratamenduak jasotzera eta giro lasai eta osasuntsuaz gozatzera joaten ziren. Higienismo ^[1] izeneko pentsamendu korronteak, besteak beste, sustatu zituen leku horiek, ur mineralek sendatzeko ahalmena zutela sinesten baitzuen. Hala, bainuetxeak eta kostaldeak atsedenerako, lasaitasunerako, osasuna hobetzeko eta eliteen sozializaziorako modako helmuga bilakatu ziren. Luxuzko hoteletan eta etxeetan hartu ohi zuten ostatu, jarduera sozialetan parte hartzen zuten, eta bien bitartean, bainuetxeen instalazioek eskaintzen zituzten erosotasunez gozaten zuten. Gaur egun sinetsezina bazaigu ere, XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendearen hasieran hasi zen ohikoa izaten hondartzan bainatzea. Ordura arte, ez zen oso arrunta, eta hala adierazten dute Gipuzkoako zenbait hondartzetako bainularien erregistroek: 1872an, Zarautzen 300 pertsona inguru bainatu zen urte osoan zehar ^[2].





Eliteetako turistez gain, bainuetxeetara medikuak, terapeutak eta ur termaletako espezialistak ere joaten ziren. Profesional horiek ekarpena egiten zioten tratamenduen eta bainuetxeetako zerbitzuen antolaketari eta kudeaketari. Ondorioz, gutxinaka, bainuetxeetako turismoaren industria langileen sare bat osatzen hasi zen, turisten kapritxoei erantzuten zieten eskuez eta buruez osatua, alegia. Horren barruan sartzen ziren hoteletako, jatetxeetako eta bestelako establezimenduetako zerbitzuetako langileak, bai eta ur termaletako tratamenduak eskaintzen zituzten langileak ere. Langile horiek orokorrean klase sozial baxuagokoak ziren, soldata miserableekin bizirauten zuten eta ezin pentsa zezaketen beraiek eskaintzen zituzten zerbitzuez gozatzeko aukera izanen zutenik inoiz. Euskal Herrian azpimarratzeko modukoa da Biarritzen (Lapurdi) kasua, Frantziako eta Espainiako goizarteen helmuga turistiko nagusienetako bat bilakatu baitzen.

Alta, Industria Iraultzari esker garatu zen horrenbeste turismoa, eskala handiko garraioa eta ostatua ahalbidetu baitzituen. Horri esker jende gehiagori eman zitzaion plazeragatik bidaiatzeko aukera, sortzen ari zen erdi mailako klaseari barne. XIX. mendeak aurrera egin ahala, turismoaren industria sendotzen eta garatzen hasi zen, eta aldi berean, formazio sozial kapitalistaren klase osaketa gertatu zen. Bidaia agentziak ireki ziren, txangozaleen elkarteak sortu ziren, turismo gidari zerbitzuak eskaini ziren eta sektorearekin lotutako bestelako zerbitzu batzuk garatu ziren. Hala, XIX. mendeko bigarren erdian zehar, irekitzen hasi zen; hau da, erdiko mailetakojendearentzat eskuragarriago bilakatu zen. Nolanahi ere, langile klaseak jarduera hartatik sozialki eta ekonomikoki baztertuta jarraitzen zuen. Eskuarki, bi profil bereizi zitezkeen:

1. Aristokrazia eta burgesia: XIX. mendearen bigarren erdian haiek ziren oraindik ere turismoa egiten zuten klase sozialik garrantzitsuenak. Klase horiek bazituzten plazeragatik bidaiatzeko beharrezkoak ziren baliabide ekonomikoak zein denbora libre, izan beraien herrialdean bertan bidaiatzeko edo nazioarteko helmugetara joateko.

2. Sortzen ari zen erdi mailako klasea: geroz eta burges txiki gehiagok, eta are, maila altuko soldatapeko zenbait langilek, plazeragatik bidaiatu ahal izan zuten. Normalki, aristokrazia eta burgesia ez bezala, helmuga hurbilagoetara joaten ziren, probintzietako hiriburuetara, hurbileko kostaldera, landetxeetara eta abar. Ekoizpen-indarren garapena garraibideetan islatu zen. Horrekin batera, sektore sozial jakin batzuek geroz eta denbora libre gehiago zuten eta aurrezteko geroz eta gaitasun handiagoa. Ondorioz, sortzen ari zen erdi mailako klasearentzat eskuragarriago egoten hasi zen turismoa. Izan ere, burgesiaren kopia merke horren nortasun, dotoretasun eta fintasunaren marketako bat bihurtu zen turismoa. Klase hori, zentraltasun soziala eskuratzea helburu, zalantzakorra eta beti etereo da, eta proletarioen gainetik kokatu nahi du, beti uste izan baitu haiek «zikinak, mozkorrak, zibilizatu gabeak eta gustu txarrekoak» direla.

Merkatari eta enpresari txikiak, besteak beste, turismoan eskua sartzten hasi ziren, izan plazeragatik edo arrazoi komertzialengatik. Bidaiei esker kontaktuak lortzen zituzten, negozio aukera berriak esploratzen zituzten, eta sareak lurralde anitzetan barna hedatzen zituzten. Erdi mailako klasearen saski-naski horren barnean kokatu genitzake artista eta intelektual gehienak. Idazle, margolari eta musikari erromantiko askok inspirazio eta esperientzia kultural bila bidaiatzen zuten. Hala, beren sormen lanetarako aberasgarriak ziren ideia eta ikusmolde berriak lortzen zituzten bidaiei esker.

Turismoa pertsona talde jakin batzuentzat eskuragarriago bihurtu bazen ere, garrantzitsua da azpimarratzea oraindik ere bazirela biztanleriaren gehiengoaren parte-hartzea mugatzen zuten oztopo nabarmenak. Izan ere, XX. mendetik aurrera gertatu ziren turismo masiboa eta geroztik hasi ziren gizarteko segmentu zabalak hartan parte hartzen. Proletarioek XIX. mendean zehar egindako bidaia bakarrak derrigorrezko emigrazioa, landa exodoa eta erbesteratzea izan ziren, hau da, historiako aldi horretan ez ziren plazera edo gaur egun laudatutako «esperientzia berrien bilaketa» izan lurreko kondenatuak desplazatzeko arrazoia; kontrara, garai berriak zekarten gosea, errepresioa eta jazarpen politikoa izan ziren.



Historiako aldi horretan ez ziren plazera edo gaur egun laudatutako «esperientzia berrien bilaketa» izan lurreko kondenatuak desplazatzeko arrazoia; kontrara, garai berriak zekarten gosea, errepresioa eta jazarpen politikoa izan ziren



MASEN TURISMOA: TURISMOAREN INDUSTRIA ETA ERDIKO KLASEA

XX. mendean zehar, turismoa herrialde askoren eragile ekonomiko nagusienetako bat bilakatu zen, bereziki historia eta kultura «aberatsak» zituzten edo baliabide natural erakarriak zituzten horien kasuan. Aireko garraioak hedatu, hotel kateak sortu eta helmuga turistiko berriak agertu izanaren ondorioz (Karibe, adibidez), turismoa jardun masibo eta globalizatu da, eta milioika pertsona mugiarazten ditu eta diru-sarrerara handiak sortzen ditu. Turismoaren gaineko lehen kongresuak antolatu ziren, eta estatuek politikak diseinatzeari ekin zioten. Orduan finkatu zen turismoa industria gisara zentzu hertsian.

Lehenago ere aipatu dugunez, turismoa XX. mendetik aurrera hasi zen estratu sozial subalternoetara hedatzen, nagusiki faktore sozioekonomiko, teknologiko eta politiko batzuen eraginez; faktoreok ezin dira elkarrengandik bereizita ulertu, hau da, ezinbestean ulertu behar dira osotasun konkretu baten barnean. Alde batetik, XX. mendean zehar, batik bat Bigarren Mundu Gerraren ondoren, Mendebaldeko erdiko klasea historian inoiz zabaldu zena baino gehiago zabaldu zen. Klase horrek ezaugarri nagusi zituen lehenbiziko proletalgoak baino denbora libre gehiago, diru-sarrerara handiagoak eta hezkuntza-aukera gehiago eskuragarri izatea, baina eskala handian. Faktore horren eraginez, jende gehiagok parte hartu zuen aisialdiko jardueretan, turismoan esaterako.

Nabarmentzekoa da nolabaiteko bake sozialeko garai bat izan zela garai hartako estatu inperialisten barnean. Bigarren Mundu Gerraren amaieraz geroztik, potentzia inperialista nagusietan estatu-itunak sinatu ziren sindikatuen, patronalen eta alderdi politiko nagusien artean. Klaseen arteko gerraren «su-eten» ustezko horren oinarria, funtsean, zera zen: AEBetako eta Europako Kapitalak uko egiten ziola metaketaren zati bati, eta birbanaketan oinarritutako politikak abiarazten zituela. Horren trukean, langile-klaseak eskala sozialean gora egiteko aukerak aprobetxatuko zituen, eta, hala, «ondo portatuko zen». Arma nuklearren garapenak ere rol garrantzitsua izan zuen; izan ere, orduantxe hasia zen Gerra Hotzean, bi lehiakide handien arteko Elkar Suntsiketa Ziurtatuaren printzipioari esker, saihestu egin zen aurreko bi gerren tankerako eskala handiko gerrarik izatea.

Garraioaren arloko aurrerapen teknologiko garrantzitsuek ere funtsezko eragina izan zuten turismoa beste estratu sozial batzuetara zabaltzeko prozesuan. Trenbide-sarea zabaltzearen eta hobetzearen, automobilen zabalpenaren eta, aurrerago, merkataritza-hegaldiak merkatzearen ondorioz, bidaiak azkarrago eta erosoago egin zitezkeen, eta publiko zabalago batek zituen eskuragarri.

Pakete turistikoak eta eskaintza merkeak abiarazi zituzten, eta, hala, diru-sarrerara desberdinak izanik ere, bidaiak eta oporraldiak izateko aukera eskuratu zuten herritarrek. Eskaintza horietan garraioa, ostatua eta jarduerak konbinatzen ziren prezio hobeetan, eta horrek bidaiak turistikoek planifikazioa eta parte-hartzea erraztu zituen. Gainera, inbertsio handiak egin ziren turismorako azpiegituretan, hala nola hoteletan, aireportuetan eta antzeko beste zerbitzu batzuetan. Hobekuntza horiek bidaian joatea sustatu zuten, eta helmuga ugaritan turista gehiago jasotzeko gaitasuna handitu.

Kapitalismoaren indar produktiboen bilakaerarekin batera, aisialdiari eta turismoari buruzko jarrerak eta nahiak ere aldatzen ari ziren. Turismoa «esperientziak» bilatzeko modu desiragarri bilakatu zen (esperientziak norbanako batengan epe motzean sortutako inpaktu emozional edo sensorial gisa ulertuta), eguneroko errutinatik ihes egin eta familiarekin eta lagunekin batera denbora pasatzeko modua. Handitu egin zen klase sozial desberdinek jarduera turistikoekin zuten interesa eta parte-hartzea; kasik soldatetan beretan kontuan hartzen zen behar sozial bihurtu zen, eta ortzi-muga aspirazional ekonomiko izatera iritsi. Lehenago ez bezala, zentralitatea lortu zuen gizartean, dimentsio demografikoan zein sinbolikoan.

Kasu batzuetan, langile-mugimenduak presioa egin zuen oporren arloan berdintasuna lortzeko eta oporraldiak unibertsalak izan zitezen. Uste zen turismoa guztientzako eskubidea zela; hari lotutako borrokak egon ziren eta neurriak hartu ziren langile-klaseak, edo haren zati batek bederen, turismoaren onurak izan zitzaizkien. Alabaina, ahobiko ezpata zen hori: baliteke turismoa demokratizatzeke borrokak konkista partzial batzuk ekartzea, langile-klaseko sektore jakin batzuen bizi-baldintzak hobetzen dituztenak, baina ezinezkoa denez ekoizpen-eredu kapitalistan hura unibertsalizatzea, borroka hori partzialki ezartzeak eragin politiko negatiboak ditu langile-mugimenduan.

Badira turismoaren hedapen hori erakusten duten datuak. Turismoaren Munduko Erakundearen lehenbiziko erregistroen arabera, 1950ean 25 milioi lagunetik gorak bidaiatu zuten beste herrialde batzuetara; 2007rako, 903 milioi lagun ziren^[3]. Turismoaren sektoreak hazkunde etengabea izan zuen XX. mendean zehar. Erakunde horrek berak emandako datuek diotenez, 1950ean Barne Produktu Gordinaren (BPG) % 2 hartzen zuen; 2019rako, aldiz, % 9,6^[4].

Handitu egin zen klase sozial desberdinek jarduera turistikoekin zuten interesa eta parte-hartzea; kasik soldatetan beretan kontuan hartzen zen behar sozial bihurtu zen, eta ortzi-muga aspirazional ekonomiko izatera iritsi

Laburbilduz, turismoak burgesiaren eliteen jarduera izateari utzi zion eta publiko zabalago bati ireki zitzaion, batak bat XX. mendearen bigarren erdian. Esan daiteke langile-klasearen zati bati ateak ireki zizkiola garai historiko jakin batean, kapitalismoa ekonomikoki eta politikoki egonkortzeko helburuz. Jarraian ikusiko dugunez, horrek ez du ukatzen turismoa berez burgesa izatea; are, beste adibide bat baino ez da, erakusten duena langile-klasea turismoaren merkatuaren beste gonbidatu bat besterik ez dela eta edozein unetan kanporatua izan daitekeela.



KRISI GARAIETAKO TURISMOA ETA TURISMOAREN KRISIA

Krisi kapitalistak eta haren agerpen-uneek, hala nola 2008ko munduko krisi finantzarioak, eragin nabarmena izan zuten masa-turismoan. Langile-aristokraziaren geruza zabalak eta burgesia txikia proletarizatzen hasi ziren. Aurrezteko gaitasuna txikitu zenez, langabeziak gora egin zuenez eta, bestalde, finantzen arloko segurtasun-gabeziaren ondorioz, bidaien eta turismoaren arloko eskaria txikitu zen edo, beste kasu batzuetan, aukera merkeagoetara jo zuen jendeak. Gainera, turismoak badu zauggarritasun berezi bat: «beldurtia» da. Kapitalismoan, aldi behin, turismoa uxatzen duten *gauzak* gertatzen dira: zibilen arteko istiluak, atentatu-olatuak, gerrak, delinkuentzia... Hori gutxi balitz, osasun-larrialdiek ere, tartean COVID-19aren pandemiak, agerian utzi dute turismoaren merkatuaren ahultasuna. Bidaiatzeko murrizketek, mugak itxi izanak, hegaldiak bertan behera utzi izanak eta herrialdeen barnean murrizketa-neurriak ezarri izanak ataka estuan jarri zuten turismoa urte batez baino gehiagoz, eta, hortaz, baita sektore horrekiko mendekotasun handia zuten estatu batzuetako ekonomiak ere.

Metaketa-krisiaren ingurugiroaren adarrean, masa-turismoak azkartu egin ditu komunitateen arteko tentsioak, eta agerian utzi kontraesanean daudela esplotazio turistikoa eta ingurumenarekin jasagarri izatea, kontuan hartuta naturako baliabideen eskasia, ekosistemen degradazioa, kutsadura eta abar. Adibidez, zer zentzu du 37 biztanleko igerileku bat izateak 7.880 kilometro kosta dituen herrialde batean, lehorre-arazo larriak izaten ari den une batean? ^[5] Espainiaz ari gara, noski, eta zifra generiko hori ez da eskandalurik handiena: kalkulatzenez, Alacanteko eskualde batzuetan igerileku bat dute bi biztanleko ^[6].

Bestela esanda, turismoa krisian sartzen da ekoizpen-modu kapitalistaren kontraesan sistemikoei bideragarritasun ekonomikoa eta onarpen soziala arriskuan jartzen dituenean, eta, ondorioz, egokitu eta eboluzionatu egin behar du bizirik irauteko. Horrela, turismoa klase-kontraesaneke zeharkatzen dutela ikusten dugu: batetik, sartzeko aukerak murriztu egin daitezke, baina, bestetik, beste eragile batzuentzat irabazi-aukera berriak sortzen ditu. Horretarako, jarraian 2008ko krisian eta ondorengo urteetan turismoak izan dituen joera globalak ikusiko ditugu, baita Espainiako Estatuaren kasuan bereziki izan dituen ondorioak ere.

***Turismoa krisian
sartzen da ekoizpen-
modu kapitalistaren
kontraesan sistemikoei
bideragarritasun
ekonomikoa eta onarpen
soziala arriskuan jartzen
dituenean, eta, ondorioz,
egokitu eta eboluzionatu egin
behar du bizirik irauteko***





2008ko finantza-krisi globalak nabarmen eragin zion turismoaren industriari mundu osoan, baina bereziki Europan eta Ipar Amerikan, erdi mailako klasearen gotorleku nagusiak baitira. Turismoan bidaiatzen zuten pertsonen kopuruak eta jarduera horiekin lotutako gastuek behera egin zuten. Turismoaren Mundu Erakundearen arabera, nazioarteko turisten kopurua % 4 jaitsi zen 2009an, hau da, 2003tik erregistratutako lehen behe-rakada izan zen ^[7]. Gainera, joera hori hurrengo urteetan ere mantendu egin zen, nazioarteko turismoa lehenago erregistratutakoa baino motelago hazi baitzen. Bestalde, turistek egindako gastuak behera egin zuela ere ikus daiteke garai horretan. 2009an, turismo gastu globala % 8,7 jaitsi zen, jaitsiera esanguratsua aurreko urteekin alderatuta. Hain zuzen ere, 2008ko finantza-krisiak eragina izan zuen turismoagatik bidaiatu zuten pertsonen kopuruan eta haiek egin zuten gastuan. Horrek hotelak ixtea, lan-kaleratzeak eta turismo-sektoreko inbertsioa murriztea ekarri zituen munduko hainbat lekutan.

Hurrengo urteetan, ordea, turismoa suspertu egin da berriro, eta zifretan errekorrak izan dira herrialde askotan bisitariei eta bidaiagastuei dagokienez. 2008. eta 2019. urteen artean, etengabe hazi zen mundu mailan turismoagatik bidaiatu zuten pertsonen kopurua. TMERen arabera, nazioarteko turisten etorrera, 2008tik 2019ra, 924 milioitik 1,46 mila milioira igo zen. Horrek esan nahi du aldi horretan % 58ko hazkundera izan zela. Beraz, esan daiteke krisiaren eztaandaren aurrean turismo-industriak beherakada bat jasan zuen arren, epe luzera, aurreko mailak berreskuratu dituela eta, are gehiago, hedatzen jarraitu duela. Baina hori Bigarren Mundu Gerraren ondorengo aldiaren pareko ongizate-estatuen balizko indartzearen ondorio al da, hau da, erdiko klasearen hedapen sozial eta ekonomikoaren ondorio al da? Edo beste faktore batzuei erantzuten die?

Lehenik eta behin, ulertu behar da langile-klasearen desjabetzeko prozesua eta aberatsen masa handitzea ez direla fenomeno kontraesankorrek, alderantziz; Credit Suissek egindako txosten baten arabera ^[8], kapital finantzarioan milioi bat dolar baino gehiagoko ondarea duten pertsonen kopurua nabarmen handituko da 2019. eta 2025. urteen artean, zehazki 46,8 milioitik ia 63 milioira.

Era berean, ez da ahaztu behar burgesia estratu minoritarioa dela munduko biztanleriari dagokionez, baina termino erlatiboetan soilik. Termino absolutuetan hurbilketa bat eginez gero, ikus dezakegu 2021ean munduko biztanleen % 10 aberatsenek, aberatasunaren %76 metatzen zutenek, 789 milioi pertsona inguruko taldea osatzen zutela. Termino demografikoe-tan, Txinako biztanleriaren erdia baino gehiago izango litzateke, AEBetako bikoitza baino gehiago eta Espainiako Estatuko baino hamasei aldiz gehiago. 2022ko desberdintasun globalari buruzko txostenak erakusten duenez, 2021ean, Europan bakarrik, 32 milioi pertsona baino gehiago ziren milioi bat eta 100.000 milioi euro arteko ondare garbia zutenak; Ipar Amerikan 59 milioi inguru ziren, eta Asiako ekialdean 25 milioi eta erdi ^[9].

Hirugarrenik, burgesiaren aurretik erdi mailako klase sendo batzuk daude; beherantz doazen arren, oraindik bizirik irauten dute, erosteko ahalmen handia dute, eskola-espeditente lehia-korrek eta higiezinak jabetzan, diruari gehiegi begiratu gabe bizitzeko aukera ematen dietenak. Duela gutxiko adibide bat jartzearen, kalkulatu da 2023ko ekainean Euskal Autonomia Erkidegoko 45.000 pentsiodun inguruk, biztanleriaren % 2k, 6.000 euro edo gehiago kobratu zutela ekaineko hilekoaren eta udako aparteko ordain-sariaren artean ^[10]. Kontuan hartzen badugu langile erretiratuen aristokraziaren sektore horiek, proportzio handiagoan edo txikiagoan, Mendebaldeko zentro inperialistako herrialde guztietan daudela, suma dezakegu langileen aristokrazia aktiboarekin eta burgesia txikiarekin batera munduko eskari turistikoaren zati garrantzitsu bat direla. Gainera, Txina edo gainpopulatutako beste zenbait potentzia kapitalista emergentetan, erdi mailako klasea zertxobait handitu da; horrez gain, herrialdeak harreman diplomatikoak ireki ditu, eta horrek bertako turismoa handitu du.

Azkenik, informazioaren eskuragarritasunak eta lineako erreserbak handitzeak abiadura, dinamismoa, interkonexioa eta eskaintza turistiko globalaren hedapena erraztu ditu. Era berean, helmuga erakargarriak sustatzeak, aire-ibilbide berriak irekitzeak eta negozio-turismoa handitzeak ere lagundu dute, oro har, turismo-eskaria handitzen.

Esan daiteke krisiaren eztagaren aurrean turismo-industriak beherakada bat jasan zuen arren, epe luzera, aurreko mailak berreskuratu dituela eta, are gehiago, hedatzen jarraitu duela. Baina hori Bigarren Mundu Gerraren ondorengo aldiaren pareko ongizate-estatuaren balizko indartzearen ondorio al da, hau da, erdiko klasearen hedapen sozial eta ekonomikoaren ondorio al da? Edo beste faktore batzuei erantzuten die?



Nolanahi ere, hori gizarte-desberdintasunen gorakadarekin batera gertatu da, eta horrekin korrelazioan. Turismo-eskariaren gizarte-eskalaren behealdean, alde batetik, langile-klasearen zenbait sektore daude, oraindik egonaldi laburrak, merkeak, ez urrunegiak, luxu gutxikoak, eta edozein ustekaberen aurrean etxean gertzeko arriskua dituztenak. Eta, bestetik, kapitalismoaren promesa faltsuen pertsonifikazioa ikusten dugu oporrik onartu ezin duten pertsona guztiengan. 2019az geroztik, turismorik gabe gelditzen den soldatapekoen proportzioa hazi egin da Europar Batasuneko estatuen erdian baino gehiagotan ^[11]. Kalkuluen arabera, EBko 38 milioi langile inguruk ezin dituzte urtean gutxienez astebeteko oporrak hartu, nahiz eta soldata bat jaso. Espainiako Estatuaren kasuan, 2020an 4,6 milioi langilek ezin zuten oporretara joan. Urtebete geroago, 2021ean, kopuru hori 4,77 milioiraino igo zen (EBko bigarren kopururik handiena). Horri guztiari langabetuak edo aktibo ez dauden langile-klaseko sektoreak gehitu beharko litzaizkioke. Hurbilketa partzial gisa, Estatistikaren

Espainiako Institutuaren (INE) azken Bizi-baldintzei buruzko Inkestak erakusten du EAeko biztanleen %18,7k (hamar biztanletik ia bik) ezin dutela etxetik kanpo oporretara joan, ezta urtean astebetetz ere ^[12]. EAE zailtasun gutxien dituen bigarren erkidegoa denez Nafarroaren ondoren (% 10,9), estatu osoko egoeraren berri izan dezakegu. Europako Sindikatuen Konfederazioak egindako ikerketa baten arabera, Espainiako Estatuko oporren desberdintasuna 1,7 puntu igo da azken hamarkadan. Batez besteko soldataren % 60 baino gehiago irabazten zuten eta hori baino gutxiago irabazten zuten langileen artean, oporren arrakala % 37rainokoa izan zen ^[13]. Mundu-mailan, gogorarazi nahi dugu Turismoaren Mundu Erakundeak mundu osoko sarrera turistikoaren errekor historikoa erregistratu zuela 2019an: 1.465,46 milioi turista baino gehiago. Garai hartan munduko biztanleria 7.700 milioi biztanle ingurukoa zela kontuan hartuta, «denok egiten dugu turismoa» leloari ez zaizkio kontuak ateratzen, ezta turismoa maximo historikoetan egon denean ere.

Gogorarazi nahi dugu Turismoaren Mundu Erakundeak mundu osoko sarrera turistikoaren errekor historikoa erregistratu zuela 2019an: 1.465,46 milioi turista baino gehiago. Garai hartan munduko biztanleria 7.700 milioi biztanle ingurukoa zela kontuan hartuta, «denok egiten dugu turismoa» leloari ez zaizkio kontuak ateratzen, ezta turismoa maximo historikoetan egon denean ere



Krisi-garaian, erdi mailako klasea lan-merkatuak, finantza-sektoreak eta gastu publikoak tirokatzen dutenean, turismoa bilakatzen da atzera egiteko eremurik aproposena. Eta hor, erabilera turistikora bideratutako edo haren efektuagatik garestitutako ondasun higiezinak funtzio protagonista hartzen dute errentak erauzteko eragiketetan



Bestalde, erdiko klasea garrantzitsu da, ez bakarrik eskariaren zatirik handiena ordezkatzeko duelako, baita krisi garaietako eskaintza turistikoaren burdinezko gerrikoa delako ere. Espainiako Estatuaren kasu partikularrak horri buruzko zenbait argibide eman ditzake; izan ere, turismoaren gorakada izan zen «susperraldi» go-raipatuaren gakoetako bat. Emmanuel Rodríguezek nahiko datu argigarriak erakusten ditu bere azken liburuan ^[14]: 2011. eta 2019. urteen arteko aldirian, Espainiako Estatura joandako turista kopurua 56 milioitik 84,7 milioira igo zen, turismoagatiko diru-sarrerak % 67 igo ziren ordainketa-balantzaren, eta, horrela, BPGari ia % 3 gehitu zion. «Bai, ongi», esango dute batzuek. Ongi norentzat? Batez ere ostalaritzaren, garraioaren eta errentariaren sektoreko enpresarientzat. Azken horiek, 2008ko oldarraldiaren ondoren bigarren egoitzei eutsi, eta, animalia sarraskijale gisa, askok galdu zituzten ohiko etxebizitzetaz (milioika etxebizitza) prezio baxuan jabetuak ziren horiek, beren kartak jokatu zituzten Erabilera Turistikoko Etxebizitzaren merkatuaren hedapenarekin. 2017. urtearen inguruan, ohiko 450.000 etxebizitza Erabilera Turistikoko Etxebizitza bihurtu ziren, 22 milioi turistarentzako ostalua ematen zuten eta 11.726 milioi euro sortu zituzten alokairu-errentetan, orduko BPGaren % 1 inguru. Horri faktore hauek gehitu behar dizkiogu: sektore proletarioen alokairu iraunkorraren eskarera handitu izana, haientzat etxebizitza sozialen parkerik ez egotea eta *Airbnb* bezalako aldi baterako alokairuko plataformak agertu izana. Guztiek batera, gaur egun denok ezagutzen dugun ekaitz perfektua eragin zuten: 2015. urtearen hasieratik 2019. urtearen erdialdera, alokairuaren prezioak % 50 igo

ziren estatu osoan. Madrilgo erdigunean, Bartzelonan eta beste hiri handi batzuetan % 60ko eta % 70eko igoera gainditu zuten, eta igotzen jarraitzen dute. Bien bitartean, alokairu-errentak lortzen dituzten etxeen kopurua 2004an % 5 izatetik 2022an % 17,45 izatera igaro da ^[15], hau da, hirukoitza baino gehiago igo da bi hamarkada baino gutxiagoan. Estatistikaren Espainiako Institutuaren Bizi-baldintzei buruzko 2018ko Inkestan, Espainiako Estatuan alokairuan bizi ziren egoiliar guztiak kontuan hartuta, urteko alokairu-ordainketaren 18.602 milioi euroko zenbatekoa deklaratu zuten, eta hamar urte lehenago ez zen 10.000 milioi eurokoa besterik. Horrek, erabilera turistikorako etxebizitzaren errentekin batera, Espainiako Estatu osoko BPGaren % 3 ekarri zuen berekin.

Krisi-garaian, erdi mailako klasea lan-merkatuak, finantza-sektoreak eta gastu publikoak tirokatzen dutenean, turismoa bilakatzen da atzera egiteko eremurik aproposena. Eta hor, erabilera turistikora bideratutako edo haren efektuagatik garestitutako ondasun higiezinak funtzio protagonista hartzen dute errentak erauzteko eragiketetan, proletalgotik klase ertainerantz. Horrek ondorio politiko eta sozial latzak ditu, jabe txikiaren figurak eta ideologia kontserbadoreak zentraltasun handia irabazten baitute.

Esan daiteke turismoari esker erdi mailako klasearen zati handi batek onik ateratzea lortu duela. Baina, hala ere, egoerak ez ditu tentsioak eta mugak estali. Errentariak hala uste badute ere, euren irabaziak ez datoz zerutik, eta hala nahi badute ere, ezin dira mugarik gabe handitu. Alokairu-errenten oinarria etxebizitza jabetzan izateko aukerarik ez duten langile guztien soldatak dira, eta Espainiako Estatuan soldata horiek une honetan direnak dira ^[16]. Horrek horrela jarraitzen badu, alokairuak noizbait ordainezinak bihurtu daitezke milioika pertsonarentzat, lanmerkatuko gorabehera txikiaren aurrean. Turismoak dakartzan gentrifikazio-prozesuek ere ezin dituzte langile guztiak hiriguneetatik kanporatu besterik gabe. Izan ere, hondoratzetik ihes egiteko eskaintza turistikoa zabal-tzen jarraitu nahi badute, non sartuko dituzte sektoreko milioika langileak? Nork prestatuko du janaria? Nork zerbitzatuko du? Nork garbituko du? Noiz arte? ●

ERREFERENTZIAK ETA OHARRAK

(1) XIX. mendean zehar, higienismoak eragin esanguratsua izan zuen bainuetxeetako turismoaren garapenean. Arlo sozialeko eta medikuntzaren arloko mugimendu horrek higiearen eta osasun publikoaren garrantzia sustatu zuten. Bainuetxeen testuinguruan, higienismoak funtsezko rola izan zuen osasunari eta ongizateari dagokienez. Uste zuten bainuetxeek ingurune natural eta osasuntsua eskaintzen zutela ur mineralen eta aire puruaren bidez, eta sendatzeko eta gaztetzeko propietateak izan zitzaizkela. Gorputzaren eta buruaren oreka lortzeko, ur termal eta naturan murgiltzea onuragarriak zirela sinesten zuten. Oinazeren bat zutenei bainuetxeetara joatea gomendatzen zitzaizkien, tratamendu espezifikoak jaso zezaten. Hori horrela, higienismoak eragin nabarmena izan zuen XIX. mendeko bainuetxeen eskarian, azpiegituran eta zerbitzuetan; hala, bainuetxeek klase altuentzat sortutako zirkuitu turistikoaren artean lehenbizikoetakoa osatu zuten.

(2) *Reseña de los Establecimientos balnearios y Baños de mar situados en la provincias del Norte de España y el Mediodía de Francia*, 1872. Madrid. Aipamena Rafael Vallejo Pousadak, Elvira Lindoso-Tatok y Margarita Vilar-Rodríguezek egin zuten *Los orígenes históricos del turista y del turismo en España: La demanda turística en el siglo xix* lanean. Zientzia Ekonomikoen eta Enpresa Zientzien Fakultatea, Ekonomia Analisiaren Oinarrien era Erakunde Ekonomikoen Historiaren Saila, Vigoko Unibertsitatea, Pontevedra.

(3) Turismoaren Munduko Erakundea. *Panorama del turismo internacional*. 2008ko edizioa. 1. or. unwto.org.

(4) Statista. *Evolución de la aportación del sector turístico al PIB en el mundo de 2013 a 2022*. (2022ko urriaren 6a). statista.com

(5) *En España hay más de 1.266.000 piscinas, una por cada 37 habitantes*. (2022ko abuztuaren 26a). elperiodico.com.

(6) López, Jorge Dioni (2021). *La España de las piscinas. Cómo el urbanismo neoliberal ha conquistado España y transformado su mapa político*. Bartzelona, Arpa & Alfíl editores. 119.or.

(7) Turismoaren Munduko Erakundea. Nazioarteko turismoaren egoeraren eta TMEn turismo-datuen *dashboarda*. 2019ko edizioa. unwto.org.

(8) Sempere, Pablo (2019ko urriaren 21a). *España ya tiene casi un millón de grandes fortunas*. cincodias.elpais.com.

(9) World Inequality Lab. World Inequality Report 2022. Lucas Chancel, Thomas Piketty, Emmanuel Saez, Gabriel Zucman (Koord). 141-142. or.

(10) Madinabeitia, Mikel. (2023ko ekainaren 26a). *La paga de más de 6.000 euros que cobran 45.000 vascos este mes*. diariavasco.com

(11) GEDAR LANGILE KAZETA. Oporretara joan ezin den biztanleria EBko herrialdeen erdietan baino gehiagotan handitu da 2019tik (2022ko uztailearen 28a). gedar.eus

(12) Espainiako Estatistika Institutua, Bizi Baldintzei buruzko Inkesta 2022.

(13) European Trade Union Confederation. Low income leaves 35 million without holiday (2021eko abuztuaren 2a). etuc.org.

(14) Rodríguez, Emmanuel (2022). *El efecto clase media. Crítica y crisis de la paz social*. Madrid, Traficantes de Sueños. 285-296. or.

(15) Morales, Emilia G. & Sangiao, Sergio (2023ko apirilaren 25a). *Vivir de las rentas: los hogares con ingresos por alquiler de propiedades crecen un 57,5% en diez años*. publico.es

(16) Castillo, Jose (2022). *Langile hipotekatuetatik langile pobreetara: soldaten historia Espainiako Estatuan*. Arteka, 30. alea (2022ko uztailea).

BIBLIOGRAFIA

Carmona, Pablo (2022). *La democracia de propietarios. Fondos de inversión, rentismo popular y lucha por la vivienda*. Madril, Traficantes de Sueños.

Murray Mas, Ivan (2015). *Capitalismo y turismo en España. Del “milagro económico” a la “gran crisis”*. Bartzelona, Alba Sud.

López, Isidro & Rodríguez, Emmanuel (2010). *Fin de ciclo: Financiarización, territorio y sociedad de propietarios en la onda larga del capitalismo hispano (1959-2010)*. Madril, Traficantes de Sueños.

López, Jorge Dioni (2021). *La España de las piscinas. Cómo el urbanismo neoliberal ha conquistado España y transformado su mapa político*. Bartzelona, Arpa editores.

López, Jorge Dioni (2023). *El malestar de las ciudades. Privatización, turismo, vivienda, especulación, tráfico... Por qué es cada vez más difícil vivir en las ciudades*. Bartzelona, Arpa editores.

Rodríguez, Emmanuel (2022). *El efecto clase media. Crítica y crisis de la paz social*. Madril, Traficantes de Sueños.

Lurralde turistikoa: turismotik bizitzetik arrakastagatik hiltzera

32

Testua — **Arteka**



Zalantzarik gabe, turismoa kapitalismo globalaren industria errentagarrienetako bat bilakatu da. Bidaiari kopuruak munduko errekorra lortu zuen pandemiaren aurreko urtean, ia 1.500 milioi bidaiari izan baitziren munduan. Hala ere, Estatu eta hiri askok haien lurraldeetara kapital fluxuak eta pertsonak erakartzeko aurkitu duten urrezko arrautzen oilo honi arrakastak heriotza ekar diezaioke.

Masifikazio turistikoak eta haren alboondorioek, horien artean gentrifikazioa edota merkatu kapitalistaren kultura homogeneizatzailearen mesedetan berezko ezaugarri kulturalak suntsitzeak, gaur egun lurralde turistiko bat denak biharamunean hala izateari uztea eragin dezakete. Modu horretan, lurralde suntsituak eta biztanlez hustuak uzten ditu ekoizpen eredu kapitalistaren industria estraktibista eta predatzaile handienetako batek: industria turistikoak.

Turista, joan zaitez hiritik, *All Tourists Are Bastards* edota *Turista, zure luxuzko bidaiia, nire miseria* leloak Bartzelonako, Parisko edo Donostiako gune turistikoetako paretetan margotuta ikusi ahal izan ditugu. Pentsa genezake pintaketa horiek izaera xenofoboko arrazoiketa politiko baten ondorio direla. Aitzitik, gure bizitzan guztiok izan gara eta izango gara hainbat txokotako turista edo bisitari. Baina, pintaketa horietako asko ez dira talde xenofoboek eginak; kontrara, «ezker erradikala» deiturikoan parte diren eta antirrazismoarekin eta antifaxismoarekin bat egiten duten antolakundeek egin dituzte. Hortaz, honakoa da galdera: nola heldu gara honaino?

Turismoarekin eta gizaki orok leku eta jende berria ezagutzeko duen grinarekin teknologiarekin gertatzen den gauza bera gertatzen da. Berez, aurrerapen teknologikoak onuragarri izan litezke giza espeziarentzat oro har, lan-karga handiak kentzen baititu eta denbora libre gehiago eskaintzen. Alabaina, harreman sozial kapitalistapean, garapen teknologikoek aberastasunaren kontzentrazio handiagoa eragiten dute alde batetik eta miseria, bestetik. Turismoarekin gauza bera gertatzen da: arazoa ez da bidaiatzea, kapitalismoak turismoa egituratzeko duen moduaren arabera egitea baizik; hau da, industriarik esktraktibistenetako, desparekotasun handieneko eta potentzialki suntsitzaileenetako baten arabera bidaiatzea.

Zalantzarik gabe, gizarte turistikoetan bizi gara eta ondare natural, kultural edo historiko oro turistifikazio prozesu batean sartzen da, bisitariak erakartzeko ustia dadin. Mundu mailan sektoreko enpresa handienak biltzen dituen World Travel and Tourism Council (WTTC) erakundearen datuen arabera, turismoa da urtero azkarren hazten den industria, baita pandemiako beherakadaren ondoren ere. Hain zuzen ere, 2019an turismoaren sektorea munduko BPGaren % 10,3 zen eta 330 milioi pertsonarentzat enplegua suposatzen zuen, munduko lan indarraren % 10 inguru. Gainera, industriak hazten jarraituko duela aurreikusten da. Izan ere, WTTC erakundearen arabera, 2033rako sektorea munduko BPGaren % 12 izango da eta 450 milioi pertsona inguru enplegatuiko ditu, munduko soldatapeko langileen % 15^[1].

Turistifikazio prozesua bereziki sendoa izan da Europako potentzia industrialak zerbitzu-ekonomiak bihurtzean, batez ere Mediterraneoko herrialdeetan. Industria Garapenerako Nazio Batuen Erakundearen (IGNBE) datuen arabera, Europak munduko ekoizpen industrial guztian zuen parte hartzea 1980ko hamarkadan % 51,4 izatetik, 2016an % 24,1 izatera igaro zen, hots, erdia baino gutxiago izatera^[2]. Turismoak leundu zituen, hein batean, industria-sareko galera hori eta ekonomia-birmoldaketa. Izan ere, turismoaren sektorea 90ko hamarkada hasieratik 2008ko krisira arte Estatuen ekoizpen osoaren bikoitza hazi zen Mediterraneoko Europako Estatu askotan.

Nolanahi ere, turismoa merkatu kapitalistako industria aldakorrena da ziurrenik, epe motzean herrialde edo eskualde bat turismorako erakargarri izateari uztea eragin dezaketen kanpo faktore askoren menpe baitago. Horrez gain, turismo-fluxuak erakarri ahal izateko lan-baldintza kaskarrak eskaini behar direla eta, industria hau mundu mailako esplotazio eta desparekotasun sortzaile handienetako bat da. Hemen makro mailan dituen ondorioak aztertuko ditugu, baina baita herri edo hiri mailan dituenak ere.



Arazoa ez da bidaiatzea, kapitalismoak turismoa egituratzeko duen moduaren arabera egitea baizik



TURISMOAREN EKONOMIA POLITIKOAREN KRITIKA

Jada esan denez, kapitalismoko industriren artean, turismoa bereziki estraktibista da. Dena den, hori ez da turismoaren bereizgarri bakarra. Industria turistikoaren oinarri materiala gune kulturalen merkaturatzean datza, eta zentzu zabalean kultura esaten diogunaren zati gisa ere ulertzen dira paisaia naturalak. Hori dela eta, industria turistikoan kapitalistak etengabe beren produktu turistikoa desberdintzen saiatzen dira, lehiakideek baino bizi-zen turistiko hobek eskaini nahian. Baina, kultura-gune turistiko bereiztuak sortzean, hainbat kulturaren bereizgarri kulturalak homogeneizatu eta ezabatzen ditu industria turistikoak, bizi-zen turistikoak kontsumitzeko modu homogeneo baten bidez.

Horri dagokionez, argigarria izan liteke David Harvey ekonomialari eta geografo marxistak turismoari eta haren industria kulturalari egiten dion kritika. Harveyren arabera, industria turistikoa monopolio-errentak lortzean oinarritzen da neurri handi batean. Monopolio-errenten bidez, burgesiako agente batzuek diru-sarrera handiagoak lor ditzakete denbora luzean, alderdi erabakigarri batzuetan bakarra eta ordezkazina den eta zuzenean edo zeharka merkaturagarria den artikulu baten kontrol eksklusiboaren ondorioz. Hori gertatzen da, esate baterako, elikagaien jatorri-deiturekin, beste inon errepikatu ezin diren leku eta baldintza zehatzetan soilik ekoitzi baitaitezke.

Berdin gertatzen da leku turistikoekin: enpresa asko saiatzen dira haien helmuga ahalik eta gehien ezberdintzen, bizi-zen bakar eta errepikazina gisara saltzeko. Dena den, helmuga oso exotikoa izanik ere, hura kontsumitzeko turismo moduak homogeneizaziora darama: frankizia-kateek hartzen dituzte jan-edateko tokiak, aireko garraioa gero eta gehiago kontrolatzen dute airelinea gutxi batzuek eta hotel-kateek munduan zehar eskaintza eta ostatu esperientzia berdin-antzekoak eskaintzeko joera dute.

Esperientzia turistikoa gero eta gehiago oinarritzen da urrutiko lurralde exotikoen bisitan, baina, bisita horretan ez da esperientziaren erosotasuna eta egunerokotasunaren segurtasuna galdu nahi. Kapitalismoak dibertsitatea hitzematzen du sozialismoaren gris monolitikoaren aurrean. Baina, industria turistikoak leku eta kultura bereizi horiek akabatzen ditu, mundu guztian gero eta antzekoagoa den industriaren estandarren arabera homogeneizatuz. Starbuckseko kafe bat har dezakezu Gizako piramideen aurrean, Erromako Koliseo ondoko KFC batean jan edo Bilboko Alde Zaharreko Airbnb batean lo egin eta Frantziako Tourraren irteera ikusi. Esperientzia guztiak ez dira asko aldatzen kontsumitzeko moduari dagokionez, Disneyland handi bilakatu baita mundua.

Nolanahi ere, toki erreal bati bere jatorrizko izaera kentzen dion eta haren bertsio higienizatu eta desinfektatu bat bihurtzen duen *disneyfikazio*^[3] horrek berak kapital turistikoa irabaziaren oinarria akabatzen du azkenean: lekuaren izaera berezia eta bakarra. Hori dela-eta hasi da gerra industria turistikoa baitan, ikuste-ko zein enpresa edo administrazio publiko den gai mantentzeko merkatuan ahalik eta denbora luzeenean nahikoa berdingabeak eta bereizgarriak diren esperientzia turistikoa.

Hala, Harveyk argudiatzen du egungo industria turistikoa eta haren industria subsidiarioen lehia nagusia «errentagarriak izan litezkeen konfigurazio-kulturalak» bereganatzea dela. Horretarako, Estatuko erakundeek eskaintzen dituzten laguntzak ere aprobetxatzen dituzte, eta beren lurraldeak helmuga turistikoa gisa sustatzen dizkiete bidaiariei zein enpresei.

Adibidez, Brasilgo favelak interes kultural handiko eta potentzialki errentagarri diren txoko bezala saldu litezke. Izan ere, hirigunetik urrun, berezko brasildarren egiazko kultura eta pobrezia eragindako miseriak ezagutu daitezke. Horregatik hasi dira turoperadore ugari Rio de Janeiroko edo Sao Pauloko faveletatik bira turistikoa eskaintzen. Kasu horietan pobrezia esperientzia eta haren ondorio sozialak dira errentagarriak izan litezkeen konfigurazio-kulturalak. Edozerk balio du bizipen berdingabeak eskaintzeko etengabeko bilaketan.

Estuki lotua dago hainbat hirik edo Estatuk euren «marka» propioa sortu eta hura saltzeko abiarazitako lasterketa. «Marka» hori eraikitzeko beste leku batzuetatik desberdindutako kapital sinbolikoa eta kulturala metatzen dute. Ziurrenik, 1992ko Olinpiaden osteko Bartzelona adibide ona da; izan ere, hiriko agintari politikoak kondehiriaren kultur ondareaz baliatu ziren gero eta ekitaldi turistikoa, komertzial, politiko edo kirol-ekitaldi gehiago erakartzeko. Alabaina, arrakasta hori, monopolio turistikoen errenta oro bezala, aldi baterakoa soilik da. Gaur egun, Bartzelona izugarri gentrifikatzen ari da portuaren inguruko auzo eta kale gehienetan, eta ingurune horiek ez dira gainerako hiri turistikoen kaleetatik apenas bereizten, multinazional berak aurki baitaitezke.



**Kasu gehienetan,
Estatuek ez
dute hautatzen
turismoan
espezializatzea;
aitzitik,
nazioarteko
lanaren banaketa
eta garapen
geografiko
ezberdinak
dira nazio-
ekonomia jakin
bat turismoan
murgiltzea
eragiten dutenak**

**TURISMOAREN
ALDEKO APUSTUA**

Turismoa *fast food*arekin aldera li-teke Estatu baten ekonomiari dagokio-nez. Erraz eta azkar lortzen den dirua eskaintzen du, baina, epe luzera, satu-razio arazoak sortzen ditu. Horretaz gain, helmuga turistiko bat izanik ere, gauetik goizera hala izateari utz dakio-ke, jasandako saturazioa dela-eta edo-ta espero gabeko arrazoiengatik, esate baterako, mugikortasuna geldiarazten duen pandemia batengatik. Hortaz, Es-tatu batentzat apustu arriskutsua da haren ekonomia turismora bideratzea.

Baina, kasu gehienetan, Estatuiek ez dute hautatzen turismoan espezia-lizatzea; aitzitik, nazioarteko lanaren banaketa eta garapen geografiko ez-berdinak dira nazio-ekonomia jakin bat turismoan murgiltzea eragiten du-tenak. Hori da Europa hegoaldeko edo Mediterraneoko Estatuaren kasua desin-dustrializatu zirenetik.

Bi estatu paradigmatico daude Eu-ropako turistifikazioaren aldeko apus-tuaren eredu direnak: Grezia eta Espai-nia. Bi kasuak antzekoak dira, Grezia Espainiak izandako industrializazio mailara iritsi ez bazen ere, biak baitira Mediterraneoko herrialdeak, Olinpiar Jokoak ospatzeagatik pertsona-fluxuen eta kapital turistikoaren erakuslehoan ezarriak.

Greziako kasuaren datuak paradig-matikoak dira. COVID-19aren pande-mia aurretik, Greziak jada ia 35 milioi bisitari jasotzen zituen urtean, nahiz eta bere biztanleria 11 milioi baino apur bat handiagoa izan. Ikus-puntu historikotik begiratuz, zifrek euren kabuz hitz egiten dute: 1998an 6,2 milioi bisitari joan ziren Greziara, eta, 2010an, 15 milioi. Bestela esanda, 20 urteren buruan, Greziak ia sei aldiz bisitari gehiago jaso ditu ^[4].

Greziak dena jokatu zuen XX. men-de hasieran bere ontzi-industria man-tenitzearen alde, herrialdeko lehen in-dustria. Bestalde, finantza eta turismo kapitalak erakartzen saiatu zen, eurora sartu zela eta 2004ko Olinpiar Jokoak antolatu zituela baliatuz. Hala eta guz-tiz ere, Greziako finantza eta hazkun-de ekonomiko ereduak behea jo zuen 2010an, kanpo zorrean eta berfinan-tzazio etengabearen oinarritutako ere-dua sostengaezina baitzen. Harrez-keron, Grezia are gehiago murgildu da turismoan, sektore horretako langileen kalterako, Mendebaldeko herrialde ba-tean jasa den lan-indarraren debalua-zio handiena bizi izan baitu Greziak.

2010az geroztik, turismoari loturiko enplegu kopurua hamar lanpostu be-rritik zortzi izatera igaro ziren herrial-de heleniarrean; zehazki, bertako lan indarraren ia % 20 enplegatzer. Turis-moak Greziako ekonomian duen pisua % 25 ingurukoa da, eta, beraz, Europar Batasunaren baitako menpekotasun turistiko handiena berak dauka. Gre-ziako Lantza antolakunde sindikalaren arabera, sektore horretako soldatapeko langileen urteko soldatak 2012an 5.300 eurokoak izatetik, 2017an 3.000 euro-koak izatera igaro ziren, euroaren kris-ian atzemandako soldata-debaluazio handienetariko bat ^[5].

2015ean, *Proto Thema* egunkariak, *Mykonos*eko *faivelak* lerroburupean, ar-gitara atera zituen Greziako uharte tu-ristikoetako langileek jasaten dituzten baldintza gizagabeak. Establezimien-duetako zerbitzariak udaro kontainer prefabrikatueta bizi behar izaten dute, inguruarekin kamuflatzeko margo-turik daudenak, zortzi lankiderek in-batera pilaturik eta aire giroturik ga-be. Antzeko fenomeno gertatzen ari da Ibizan: ostalaritzako langileak kon-tainer prefabrikatueta bizi dira udan, ezin baitute bizitegi-alokairu bat or-daindu goi-denboraldian duten kostu altuagatik.





Bere aldetik, Espainiaren kasua ere argigarria da turismoak lan debalua-tuarekin duen harremana ulertzeko. 2022an Europako lehen opor-helmuga izan zen Espainiako Estatua. Are gehiago, urtean sortzen dituen lanpostu gehienak zerbitzuen sektoreari lotuta daude, zeinak mendekotasun handia baitu turismoarekiko. 2010-2020 arteko hamarkadan, urteko kontratu berrien ia % 13 zerbitzari lanetarako zen, aurreko hamarkadako bikoitza. Kontratu horien ia erdia sasoikakoa eta hilabete baino gutxiagokoa zen, eta soldata Espainiako batez besteko soldata baino % 42 baxuagoa zen.

«Espainia marka» turistikoa ezaguna da nazioartean jaiengatik eta eguzkiagatik eta, batez ere, merkea izateagatik. Baina, kostu baxuko erakusleho turistiko hori sektoreko beharginen erabateko debaluzioan oinarritzen da. Munduko Ekonomia Foroak, 2019ko *The Travel and Tourism Competitiveness Report* txostenean, berriz ere Espainiako Estatua jarri zuen lehen postuan lehiakortasun turistikoa izateagatik, Frantziaren, Alemaniaren, Japoniaren, Erresuma Batuen, Estatu Batuen, Australiaren, Italiaren, Kanadaren eta Suitzaren aurretik. Ikerketaren arabera, Espainiako ereduaren arrakasta eskaintza kulturean eta naturalean, azpiegitura turistikoa, aireko konektagarritasunean eta gobernuaren zein administrazioen babesean datza. Baina, osagai sekretua aipatzea ahazten zaio: eskulan eta lurzoru urbanizagarri merkea; munduko masa eta enpresa turistikozko iman bat.

Espainiako alderdi politiko nagusiak ohartu dira estraktibismoan eta prekarietatean oinarritzen den sektore batek sortzen dituen arazoez. Hori dela eta, azken urteetan kalitatezko turismoa erakartzeaz dihardute, hau da, eufemismo bidez adierazten dute erosteko ahalmen handiagoa duten bisitariak erakarri nahi dituztela. Baina, Espainiako turismoaren berezitasuna bere prezio baxuan eta festa eskaintzan datza eta «desfase» eskaintza hori gabe, erakargarritasun turistikoa zati handi bat desagertzen da. Bitartean, Espainiako Estatuko langileen ia % 25ak, 4,6 milioi inguruk, ezin dio aurre egin urtean astebetez oporrak hartzeko gastuari. Eguzkia eta hondartza dituen Espainiaren beste aldea da.



Azken urteetan kalitatezko turismoa erakartzeaz dihardute, hau da, eufemismo bidez adierazten dute erosteko ahalmen handiagoa duten bisitariak erakarri nahi dituztela

TURISMOAREN HIRI-MAILAKO ONDORIOAK

Maila lokalago batean, turismoak eragiten duen arazo nagusia hirieta-ko erdiguneen gentrifikazioa da. Hiriaren erdigunea saltoki turistikoak erakartzen dituen *museo* handi bat bihurtzean, etxebizitzaren batez besteko prezioa bisitari kopuruaren hazkunderarekin batera igotzen baita. Egoera horretan, eragin berezia du pisu turistikoaren fenomenoak eta horiek kudeatzen dituen enpresa liderrak: Airbnb.

San Frantziskon sortutako enpresa horren hasierako helburua pisu edo gela bat eskaintzen zuten eta ostatu bilatzen zuten erabiltzaileen arteko kontaktua erraztea zen. Baina, hasierako arrazoi hori berehala desagertu zen. Errentagarritasunerako aukera erraza ikusirik, jabeek diru-sarrera gehigarriak lortzeko formula ikusi zuten eta bigarren plano batean geratu ziren horrek ekar zitzakeen ondorioak, baita haien inguruneak ere. Parisko etxebizitza alorreko alkateorde izan zen Ian Brossatek eginiko ikerketa baten arabera, etxebizitza bat epe motzeko alokairu turistikora bideratzeak epe luzeko alokairu tradizionalera bideratzeak baino 3,5 aldiz etekin handiagoak dakartza.

Airbnb fenomenoaren globalizatu egin da eta eragin berezia du jabeedunen gizarteetan, non familia askok etxebizitza baliatzen duten diru-sarrerak lortzeko ondasun nagusietako bat bezala. Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru probintzietan 6.708 etxebizitza eskaintzen dira Airbnb atarian. Baina, lurralde horretako hiri turistiko nagusia, Donostian, daude horietako 1.659. Aldi berean, Eusko Jaurlaritzaren Alokairu-merkatuaren Estatistikaren datuen arabera, Donostiako hileko alokairuaren batez besteko prezioa ia 950 eurokoa izan zen 2022an, EAeko alokairuaren batez besteko prezioa baino % 18 altuagoa ^[6].

Dena den, Donostia ez da gentrifikazio prozesu hori jasaten ari den hiri bakarra. Esate baterako, 2023ko lehen hiruhilekoa aurreko urtekoarekin alderatuz gero, Bilbon % 45 gehiago dira etxebizitza turistikoak, Espainiako igoyerarik handiena Ibizaren atzetik (% 47ko igoyerarekin). Nolanahi ere, Donostia nabarmentzen da oraindik ere pisu turistiko bakoitzeko eguneko errentagarritasun handiena duen hiri bezala, eguneko batez beste 212 euro lortu baitaitezke mota horretako pisu bat alokairuan jartzeagatik ^[7].

Ukaezina da erabilera turistikoko etxeen alokairuen errentagarritasuna bizitoki-alokairuena baino askoz ere handiagoa dela, nahiz eta urte guztian zehar beteta ez egon. Hori dela eta, jabe txikiez gain, putre-funts eta enpresa ugari etxebizitza bloke osoak ari dira erosten helburu turistikotarako. Enpresa horien artean Staykeepers nabarmentzen da eta dagoeneko 250 pisu baino gehiago ditu Donostia eta Bilbo artean bakarrik. Enpresa horrek % 20 eta % 80 arteko etekin handiagoak hitzematzen dizkie beren zerbitzuak higiezinak epe motzeko alokairura bideratzeko erabili nahi dituzten jabeei.

Horrek guztiak fenomeno bitxi bat eragiten du; izan ere, hiri turistikoko handiak jada ez dira biztanleria egonkorra lortzen ari, hura kanporatzen baizik. Kasurik muturrekonen artean, Venezia da *museo hirien* adibide paradigmatikoa, non bertako auzo-bizitza jada ez den existitzen. Egun, Veneziaak 50.000 bat biztanle ditu, XVIII. mendean zituen biztanleen herena. Hala, hiri italiarrak 120.000 biztanle galdu ditu aurreko mendeko 50eko hamarkada hasieratik.

Bartzelona ere joera bera jasaten ari da. Hiriburuko auzo turistikoenean, Auzo Gotikoan, populazioa gero eta baxuagoa da, bigarren egoitzen eta Airbnben inbasioaren ondorioz: 2007an, auzo horretan 27.946 biztanle zeuden; 15 urte beranduago, aldiz, 2.478 biztanle daude erroldatuta.

Donostia, euskal hiriburu turistikoa, joera horietatik urrun dago oraindik, baina horiek errepikatzen hasia da. Hain zuzen ere, Donostian jaiotako gazte langile ugari hiria uzten ari dira, ezin baitute bertan etxebizitza bat ordaindu. Gipuzkoako Aldundiaren ikerketa baten arabera, gutxienez 3.375 gazte (18 eta 34 urte artekoak) joan dira Donostiatik ondoan dauden Buruntzaldeko eta Oarsoaldeko herrietara bizitzera 2010 eta 2020 artean ^[8].



ONDORIOAK

Turismoa, kultura eta jende berria ezagutzeko gogo bezala ezaugarrituta, ez da txarra bere horretan. Arazoa harreran sozial kapitalistapean hartzen duen forman dago. Hala, turismoa pertsonentzat eta ekosistementzat industria predatzaile bilakatu da. Izan ere, turismo fluxu orok masifikatzen dituen lekuetako naturan eta ekosistemetan eragina du.

Bidaiatzea eta ezagutzea giza aberastasun kulturalaren parte da eta, beraz, modu demokratiko eta arrazional batean kudeatu behar litzateke, eta gizartearen gehiengoari ondasun horretara sarbidea eman. Gaur egun, ordea, turismoaren arazoari aterabidea emateko hura gizarteko kapa dirudunenen eskuetara mugatzen da, hau da, klase ertain-altuen eskuetara. Modu horretan, langile klasearen zati handi bat oporren fenomenotik kanpo geratzen da, eta industria horretan langileak modu prekarioan enplegatzen jarraituko dira.

Gainera, joera honek lurralde askotako bereizgarri kulturalak akabatze-ko arriskua du. Hiri edo eskualde bat gehiegi masifikatzen denean, bertako jendea eta kultura galtzen baititu azkenean, Venezian gertatu den erara. Horrek, azken buruan, hiri edo eskualde hori merkatu turistikotik botako du. Horrenbestez, industria turistikoa erloju-bonba bat bailitzan jarduten du aberastasuna metatzeko baliatzen dituen lurraldeetan.

Labur esanda, lurralde bat egungo kudeaketa turistikoko ereduaren baitan masifikatzen denean, bere burua harrapakatu eta ondoren merkatu turistikotik botatzeko baldintzak ezartzen ditu. Hiri edo eskualde bat ezin du betirako turistikotik izaten jarraitu, industria turistikotik kapitalistaren joera urte batzuk lehenago turistikotik bilakatu zuten bereizgarritasunak agortu eta homogeneizatzean. ●

***Bidaiatzea eta ezagutzea
giza aberastasun
kulturalaren parte
da eta, beraz, modu
demokratiko eta arrazional
batean kudeatu behar
litzateke, eta gizartearen
gehiengoari ondasun
horretara sarbidea eman***



OHARRAK

[1] Analisi-erreportaje honetan eskainitako datu estatistiko gehienak COVID-19aren pandemia lehertu aurreko azken urteei dagozkie, pandemiarekin batera mugikortasun turistikoa hein handi batean gelditu egin baitzen. Indarberritze prozesuan badago ere, fenomeno honen joerak ulertzeko fidagarriagoak dira pandemia aurreko datuak. Bertan aipatutako ikerketa 2020. urteko «Travel and Tourism. Global Economic Impacts and Trends» da, World Travel & Tourism Council (WTTC) erakundeak argitaratua.

[2] Europaren pisu-industrialaren galeraren joera hau erakunde horren urteroko informe guztietan ikusten da. Bertan, eskuragarri dagoen azkena kontsultatu dugu: «Informe sobre el desarrollo industrial. El futuro de la industrialización en un mundo post-pandémico», IGNBE, 2022.

[3] *Disneyfikazio* terminoa hainbat kritiko kulturelek erabili dute Michael Sorkin arkitekto eta idazle estatubatuarrek Estatu Batuetako XX. mende amaierako hiri berrien eraikuntza- eta hirigintza-planei hala deitu ostean.

[4] Datuak Turismoaren Mundu Erakundearen (TME) datu basean eskuragarri.

[5] Langile turistiko greziarren baldintza orokorren inguruko ikerketa bat Orestis Papadopoulos eta Dave Lyddon (2020) ekonomialarien artikuluan irakur daiteke: «Deregulation and institutional conversion in the Greek hotel industry: an employment relations model in transition», *Industrial Relations Journal*, 51 (1-2), 92-109 or.

[6] Txostenaren izen zehatza «Etxebizitza libre kolektiboen ohiko alokairu-kontratuen azterketa estatistikoa. (merkatuko prezioan)» da, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak 2022ko edizioan argitaratua.

[7] Euskal Herriko higiezinaren koiunturaren inguruko analisi handiagoa aurtengo ekainean ELA sindikatuko Manu Robles-Arangiz fundazioak argitaratu duen azterketan irakur daiteke: «Etxebizitza Hego Euskal Herrian: eskubide bat merkatuaren menpe».

[8] Ikerketaren izena «Bizilekuari lotutako gazteen mugikortasuna Gipuzkoan (2010-2020)» da, 2022 urtearen bukaera aldera Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Kooperazio, Gazteria eta Kirol Sailak argitaratua.

BIBLIOGRAFIA

Bravo, Pedro (2018): *Exceso de equipaje. Por qué el turismo es un gran invento hasta que deja de serlo*, Madril, Debate.

Brossat, Ian (2018): *Airbnb: la ciudad uberizada*, Iruñea, Katakarak Liburuak.

Cañada, Ernest y Murray, Ivan (2019): *Turistificación global. Perspectivas críticas en turismo*, Bartzelona, Icaria Editorial.

Carmona, Pablo (2022): *La democracia de propietarios. Fondos de inversión, rentismo popular y la lucha por la vivienda*, Madril, Traficantes de Sueños.

Dioni, Jorge (2023): *El malestar de las ciudades*, Bartzelona, Arpa.

Dutorme, Bernard (2019): *La dominación turística: turismo insostenible*, Madril, Editorial Popular.

Harvey, David (2013): *Ciudades rebeldes. Del derecho de la ciudad a la revolución urbana*, Madril, Akal.

HISTORIA
ERREPORTAJEA

**Etorkizunik
gabeko hiria:
tough city
posmodernoa**



Julen Cambra

**Bilboko Postal
zaharren irudiak**

Gehry arkitektoak,
geroago Guggenheim
museoa diseinatu
zuenak, *Tough city* izendatu
zuen Bilbo. Hiri gogorra, latza
eta kutsatua zen Bizkaiko
hiriburua 80ko hamarkadan.
Eskorbutoren hitzetan:



*Mirarás al cielo y verás
una gran nube sucia.
No lo pienses, no lo dudes.
Altos hornos de nuestra ciudad.
Mirarás las fachadas
Llenas de mierda, llenas de mierda.
Desde Santurce a Bilbao,
vengo por toda la orilla.
Somos ratas en Vizcaya,
somos ratas contaminadas.*

Hiriaren egoera lazgarria zen 80ko hamarkadan.
Industrializazioak Bilboaldea eraldatu zuen, loraldi ekonomiko
horretan ontziolak, portuak, hamaika lantegi eta meatze zabal
eraiki baitziren. Hala ere, hazkundeak aztarna grisa, iluna
eta kutsatua utzi zuen. Ondorengo urteetan Bilboaldeak eta,
Bilbok, zehazki, eraldaketa urbanistiko ikaragarria jasan zuen.
Eraldaketa horren abiapuntu dugu 1973ko petrolioaren krisia,
Bilboaldea gogor kolpatu baitzuen.

ETORKIZUNIK GABEKO HIRIA

Bigarren Mundu Gerraren ondoren, Mendebaldeko herrialdeetan hazkunde dinamika bat izan zen, baina gerrek, krisi modura ulertuta, galga izugarria dute emaitza, kapitalaren indar suntsitzaileen garapena dela-eta. Hala, gerraosteko berreskuratzeko ekonomikoak sustatzeko zailtasun handiak izan ziren. Horrek, gerra garaian, Estatuaren zein ekonomiaren integraztearekin batera, Estatuak ekonomian esku hartzearen beharra «ekarri zuen berekin». Baina Estatuaren esku-hartzeaz harago, ondorengo bi hamarkadetan zehar «lortutako mozkin handiei esker, posible izan zen neurririk gabeko ekoizpena garatzea eta [...] kapitalismoa [Mendebaldean] "kontsumo gizarte" gisara agertzea»^[1]. Bigarren Mundu Gerraren ondorengo hazkunde ekonomikoaren zikloa etekin-tasa gorakorrak, Estatuaren gastuaren handitzeak eta kredituaren jaulkitzearen hazkunderak, ezaugarritu zuten, besteak beste.

Kapitalismoaren urrezko aroa izan zen hori, politika ekonomiko keynes-tarren zioak apurtu ziren arte. Izan ere, urteetako Estatuaren gastu publikoaren bidez, ekonomialariek langabezia-tasa eta inflazioa kontrolatzea proposatzen zuten, hots, langabe kopurua zein prezioen igoera orekatu zitekeela defendatzen zuten. Izan ere, A. W. Phillips ekonomialariaren arabera, prezioek eta soldatek gora egiten dutenean, langabeziak behera egiten du, eta, aldiz, soldata eta prezio behera egiten dutenean, langabezia handitzen da. Beraz, haren ustez, Estatuaren interbentzioaren bitartez, eta «goraldi ekonomikoa» oztopatzen ez zuen bitartean, inflazioa txikituz edo handituz bi elementuen arteko oreka mantentzeko.

1973. urteko krisiak demostratu zuenez, soldataren, prezioen igoeraren eta langabeziaren arteko harremanaren teoria horiek inflazioaren «bentakofuntzioa faltsutu» ez ezik, ez zuten errealitatearekin bat egiten: petrolioaren prezioaren gorakadak inflazioa bultzatu zuen, eta, halaber, langabezia-tasak gora egin zuen. Testuinguru horretan, langabezia-tasa txikitzeko politika inflazionistak ezartzeak egoera okertu besterik ez zuen egin, eta, beraz, inflazioaren bidezko neurri interbentzionistak alferrikakoak ziren. *Estanflazioa* izena eman zitzaion egoera horri, hau da, «gainbalioaren ekoizpena zailtzen duten baldintzen testuinguruan, etekina areagotzea bultzatzeko» saiakerari^[2], eta, hori gertatuz gero, geldialdi ekonomikoa ezin da inflazioaren igoeraren bitartez geldiarazi. Garai hartan, egiturazkoa zen krisia; beraz, teoria keynestarretatik eratorritako politika interbentzionistek huts egin zuten. Gainera, neurri horiek sistema ekonomikoaren kontraesanen menpe daudela demostratu zen; hortaz, ez zuten krisi ekonomikoa ekiditeko gaitasunik. Kontrara, atzeraldi ekonomikoa gibeleratu besterik ez zuten egin.

**Teoria
keynestarretatik
eratorritako
politika
interbentzionistek
huts egin zuten.
Gainera, neurri
horiek sistema
ekonomikoaren
kontraesanen
menpe daudela
demostratu zen;
hortaz, ez zuten
krisi ekonomikoa
ekiditeko
gaitasunik.
Kontrara, atzeraldi
ekonomikoa
gibeleratu besterik
ez zuten egin**

HISTORIA



1973ko petrolioaren krisia Bilboaldera iritsi zen, eta gogor kolpatu zuen. Hazkunde ekonomiko handia izan zuen hiriak 50eko eta 60ko hamarkadetan zehar, eta enpresen etekin-tasek gora egin zuten nabarmen 1960. urtetik 1973. urtera arte^[3]. Baina petrolioaren prezioaren igoerak ondorio lazarriak izan zituen Bizkaiko hiriburuaren industrian, eta, nazioarteko ekonomian bezala, egiturazkoa zen krisia. Izan ere, petrolioaren prezio igoera bortitzak inbertsioen etekin-tartea txikitu zuen, eta etekinen galerari aurre egiteko prezioen igoera bultzatu zuten enpresak. Horrek elkarri lotutako ondorioak^[4] ekarri zituen, laburki aipatzearen: etekin-tasek behera egiten zuten zuzenean, enpresak inbertsioak txikitu zituzten eta industriak behera egin zuten, eta, ondorioz, garraio-enpresek jarduna murriztu zuten, merkantzia eta ondasunen mugimendua txikitu zela-eta. Hala, soldata errealek behera egin zuten, eta horrek, eskaria txikitu zuenez, kontsumo produktuen industriaren galera bultzatu zuen.

Bilbo industrialaren gainbeheraren hasiera izan zen krisia. Nerbioiaren ibaiertzean industriagune zabalak eraiki ziren, eta, Bilboko Abandoibarratik Ezkerraldera zein Erandiora zabaldu zen. Hektarea zabalak okupatzen zituzten fabrikek ehun urbanoa moldatu eta bihurtu zuten: gune industrial zabalak eraikita, burgesiak bere neurrirako espazioa sortu zuten. Industriagune horiek ontziolak, siderurgia-fabrikek eta kimikoen lantegiek osatzen zituzten eta, beraz, esan daiteke hiriaren ekoizpena oso espezializatua zegoela. Hego Euskal Herriko industriari erreparatuta, burdingintza eta kimikaren sektoreak ziren nagusi -1969an Bizkaiko ekoizpenaren % 59 metalezko produktuak ziren eta % 13, aldiz, kimikoak^[5]-. Dibertsifikazio maila txikikoa zen ekoizpena, eta, horren ondorioz, Bilboren antzeko hiriek -Hanburgo, Glasgow edota Rotterdam- kalte nabarmenak izan zituzten, bai petrolioaren prezioaren gorakadarekiko, bai eta kanpo lehiarekiko ere.



Nazioartean lan-zatiketa berria ezartzen ari zen, non herrialde garatuek puntako teknologian edota makina-erremintan oinarritutako industria bultzatu zuten. Alta, Bilboaldeak lan-banaketa berriari egokitzeko zailtasun handiak izan zituen

Hala, krisiak jo eta 1974. urtetik aurrera, etekin-tasak 1985 urtera arte etengabe behera egin zuen. Epe horretan zehar eskaria txikitu egin zen, eta, hori ez ezik, lehiakortasuna gogortu zen, Estatuko ekonomia nazioartera ireki baitzen Frankismoaren amaieran. Gainera, 70eko hamarkadan lehia zabaldu ez ezen herrialde garatuetan «aldaketa teknologikoen azeleratu» zen bitartean^[6], teknologia nahiko estandarizatuan oinarritzen zen Bizkaiko ekonomia, eta krisi egoeran inbertsioa zein berrikuntzak sustatzeko zailtasunak zirela-eta -etekin-tasa baxuak zirela medio-, ez zuen ekoizpen jarduera berriak sortzeko gaitasunik izan. Bien bitartean, nazioartean lan-zatiketa berria ezartzen ari zen, non herrialde garatuek puntako teknologian edota makina-erremintan oinarritutako industria bultzatu zuten. Alta, Bilboaldeak lan-banaketa berriari egokitzeko zailtasun handiak izan zituen: batetik, ezin ziolako Ekialdeko lehiari aurre egin eta, bestetik, industria birmoldatzeko saiakerak, inbertsio faltekin zein etekin-tasa beherakorrek ito zutelako.

Ildo honetan, 1977. urtean Moncloako akordioek Bilboaldeko ekonomian eta haren norabidean izan zuten eragina azpimarratzea beharrezkoa da, bai eta lan-merkatuko araudian izan zutena ere. Akordioen epe motzeko helburu ekonomiko nagusia inflazioari aurre egitea eta etekin-tasa igotzea zen, soldata errearen jaitsiera bultzatuta. Gainera, akordio horiek Espainiako Estatu ireki nahi zuten, Frankismo garaiko itxiera internazionalari amaiera emateko, eta, bestalde, aipatutako nazioarteko lan-zatiketa berriari egokitzeko. Hori ez ezik, garai horretan Espainiako ekonomian turismoak ekonomiaren zati handia hartu zuen, aipatutako Europako lan-zatiketa horri erantzunez. Are gehiago, lan-merkatuaren baldintzak aldatu ziren: kaleratzeak merketu ziren, aldi baterako kontratuak ahalbidetu ziren... Hitz gutxitan, laneskuaen kostua txikitu zen. 1982tik aurrera, industria birmoldatzeko politikak ere bultzatu ziren, eta horiek, adibidez, Euskalduna ontziolen langileei aplikatu zitzaizkien: kalte-ordainak, aurretiko erretiroak, langile kantitatea txikitzea, kaleratzeak, besteak beste.

Testuinguru horretan, hurrengo urteetan, borroka sindikal entzutetsuak piztu ziren; horien artean, Euskaldunaren, Altos Hornos de Vizcayaren edota Explosivos Río Tinto fabriken itxieren aurkako protestak. Mobilizazio hauek ez ezik, 70eko hamarkadan beste hamaika greba eta protesta egin ziren: 1977ko azaroaren 5ean 8 sindikatuk manifestazioa egin zuten langabeziaren aurka, baita Moncloako akordioen kontra ere, greba orokorra egin zuten Bizkaiko langileek Babcock Wilcoxeko langileei babesa emateko, eta 1979ko abenduaren 11an Langileen Estatuaren aurka atera ziren, beste adibide batzuen artean. Krisiak eta erregimenaldaketak bat egin zuten: aldi berean gertatu ziren Bilboalde industrialaren sorrera eta frankismoaren amaiera, eta langileen borrokek kaleak bete zituzten.

Hala eta guztiz ere, langileen borrokek kaleratzeei eta fabriken itxiereri eutsi bazieten ere, 80ko hamarkadan hainbat industriagune hustu eta zokoratu egin ziren. Desindustrializazio prozesuak aurrera egin ahala, industriak zaharrak hiria grisa, zikina, hondatua eta utzia bilakatu zuen. Fabrikek, meatzeek eta ontziolak hondakinak eta kutsadura besterik ez zuten utzi Nerbioiaren ertzetan, Eskorbutok abestu zuen bezala: hodei zikin batek estaltzen zuen hiria, Ezkerraldeko Bilbora, eta fatxadak «mierdak» estaltzen zituen. Paisaia dekadente eta goibela Santurtziko punkiek bizi zuten errealitatearen isla zen, garaiko gazteen bizitzaren gordintasunaren adierazle. Gazteen langabe kopurua ikaragarria zen 80ko hamarkadan. 20 urte baino gutxiagoko langabezia-tasa % 18,6tik % 71ra igo zen 1976 eta 1982 bitartean eta, aldiz, 20-24 urte artekoa % 6,6tik % 43,7ra iritsi zen Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE)^[7]. Hala, Ezkerraldeko gazteen langabezia-tasaren datu zehatzik ez dagoen arren, tasa are handiagoa zela jo daiteke. Industriagune eta portu zabalenak Ezkerraldean zeuden eta langile auzo horietan ekonomiaren dibertsifikazio maila oso baxua zen, hots, industrian aritzen ziren eskualdeko langile gehienak. Beraz, atsekabetasuna zen nagusi gazteen artean. Krisia sakona zen, eta etorkizuna industria-hiriaren zerua baino ilunagoa zen. Sex Pistolsen «no future» leloaren errepikak oihartzun egiten zuen Bilboaldean: «non dago gure zaharrek forjatutako geroa?»^[8].



Bilboaldeko hiri-paisaia industriaguneek menperatzen zuten: 1991ean 158 gune hondatuk 150 hektarea okupatzen zituzten hiriburuan eta beste 300 hektareetan itxiera prozesuan zeuden fabrikak zeuden, gehienak Altos Hornos de Vizcaya enpresa siderurgikoaren parte zirenak. Hori ez ezik, meatzaritza-ustiapenak hiriaren inguru oso zabalak kaltetu zituen -3.500 hektarea, zehazki-. Egoera ez zen gehiegi aldatu hurrengo urteetan, eta 90eko hamarkadaren amaieran Bilboaldeko 330 hektarea erortzeko zorian zeuden lantegiek eta portuek hartzen zuten. Aipatutako horiek EAEn abandonatutako industriaguneen % 72 osatzen zuten. Zehatzago, Ezkerraldearen egoera tamalgarria zen, eskualdearen lurzoru kalifikatu osoaren bi heren portu, meatze eta industriagune nariatuak baitziren^[9].



Langileen borrokek kaleratzeei eta fabriken itxiereri eutsi bazieten ere, 80ko hamarkadan hainbat industriagune hustu eta zokoratu egin ziren





Proiektuetan oinarritutako urbanismoa da, «asmo global guztiak aldera batera utzi dituen interbentzio partzial eta zatikatuetan oinarritua» eta, beraz, «ikuspegi holistikoen aurkakoa» den joera da, hots, ez du plan global edo guztiz integraturik egiteko asmorik

TOUGH CITY: POSMODERNISMOAREN GUTIZIAK

Hiri hondatu hura *tough city* izen- datu zuen Gehry arkitektoak, eta hark diseinatu zuen Bilboren eraldaketa urbanistikoaren proiekturik garrantzitsuen: Guggenheim museoa. Eraikina eraldaketa urbanistikoaren eredu, ikur eta inflexio-puntua izan zen 1997an, irekieraren urtean. Halere, hiriaren berrikuntza-planak lehenago hasi ziren. Instituzioak 80ko hamarkadaren amaieran hasi ziren horiek diseinatzeko, baina, beste hiri desindustrializatuekin alderatuta (Glasgow edo Rotterdam, kasu), oso berandu egin zen. 1988an *Perspectivas 2005* martxan jarri zen, Bilbo metropolitarraren «biziberritze ekonomikoa» bultzatzeko^[10]. Tokiko berpizkunde ekonomikoa sustatzeko espazio metropolitarra biziberritzea behar-beharrezkotzat jotzen zuen proiektuak eta, horretarako, Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) jarri zen martxan maila instituzionalean, bai eta Metropoli-30 plataforma publiko-pribatua ere. Asoziazioaren kideen artean aurki ditza- kegu instituzio publikoak, Petronor, Iberdrola, EHU edota El Correo. Hori ez ezik, Bilbao Ría 2000 sozietate anonimoak itsasadarraren inguruko urbanizazio berriaz arduratu zen, eta hainbat proiektu martxan jarri zituen: tranbia, Alondegia, Melia Hotela, Abandoibarraren urbanizazio berriak, itsasadarreko zubiak...

HAPO planak hiru funtzio bereizi zituen: ekoizpena, etxebizitza eta «kalitate urbanoa zein hiriaren hiriburutza erregionalaren izaera hobetzea»^[11]. Horretarako, lehenengo urratsa garraioen azpiegitura berritzea izan zen. Horrenbestez, metroa 1989an eraikitzen hasi zen, eta norabide urbanistiko zein arkitektoniko berriaren adibide argia izan zen: proiektu bakanetan oinarritutako urbanismoa da, hiria itxuraldatzeko helburua duena eta sinadura ospetsuen gerizpean eraikitzen dena. Proiektuaren itxura hiperteknologikoa eta futurista, gardena eta guztiz deserrotua etorkizuneko Bilboren aztarna izan zen. Metroarenak ez ezik, Calatravaren aireportu berriaren lanak 1995. urtean hasi ziren, antzeko patroia jarraituta: diseinuak praktikotasuna eta kalitatea baino gehiago itxura lehene- tsi zuen, Valentziako arkitekto horren obra guztiek bezala. Aireportuak «higienismoa, iraunkortasuna, zientzia eta XXI. mendeko teknologiaren»^[12] itxura bilatzen zuen. Halaber, Bilbo- ko portuak desegin eta Ezkerraldera kanporatu ziren, lurzorua libratzea baitzen beste gako garrantzitsuetako bat. Horretarako, 630 milioi euroko inbertsioa egin zuten instituzio publi- koek 1989 eta 2005 artean. Osotara 10 hektarea hustu ziren, eta hiria azpiegitura berriez hornitu eta Abandoibarra inguruko eraberritze urbanistikoa ahalbidetzeko baldintzak ezarri ziren milurtekoaren amaieran.

Modu honetan, 80ko hamarkada- ren azkenengo urteetako azpiegitura proiektuek 90eko hamarkadatik aurrera Bilbon nagusituko zen joera ur- banistikoaren norabidea aditzera eman zuten. Proiektuetan oinarritutako ur- banismoa da, «asmo global guztiak aldera batera utzi dituen interbentzio partzial eta zatikatuetan oinarritua»^[13] eta, beraz, «ikuspegi holistikoen aur- kakoa» den joera da, hots, ez du plan global edo guztiz integraturik egiteko asmorik^[14].

Urbanismo berri honen proiektu nagusia Guggenheim museoa izan zen, hiriaren nazioarteko ikurra. Bilbo «mapan kokatu» zuen museoaren proiektua Eusko Jaurlaritzak bultzatu zuen 1991an, Guggenheim Fundazioa- rekin eta Bizkaiko Diputazioarekin batera. Hiriaren eraldaketaren marka ezarri eta turismoa erakartzeko gai zen makro-proiektuaren bila ari zen Jaurlaritzak. Hala, Thomans Krens funda- zioaren zuzendariak museo berri bat osorik finantzatzeko prest zeuden instituzioak topatu zituen. 144 milioi eu- roko inbertsioa egin eta 1993an hasi zi- ren lanak; azkenik 1997an zabaldu zen Gehry arkitektoaren museoa. Titanioz- ko erraldoia arkitektura *blob* eta bio- morfikoaren printzipioak jarraitzen di- tu: arkitektura mota horren ezaugarri nagusi dira, oro har, forma organikoak, zirkulu eta kurbak, lore itxurak -bista zenitaletik arrosa itxura du museoak-, mosaikoak, metal zein kristalaren era- bilera eta, oro har, naturaren imitazioa.

Esan bezala, Guggenheim museoak printzipio horiei jarraitzen die, nahiz eta naturaren edota forma organikoaren imitazioa Gehryren ustezko asmoeta- tik oso urrun dagoen. Aitzitik, arkitek- toaren arabera, museoaren kurbek eta materialek ontziolen eta fabriken for- ma imitatu nahi dute. Titanioak eta ka- reharriak Bilboren *tough city* itxura har zezan bilatzen zuten, hiriaren gogorta- sunaren, itsuskeriaren eta desindus- trializazioaren ondorioen isla izatea, alegia. Hain zuzen, arkitektura posmo- dernoaren praxiaren bereizgarritasuna da hau: Gehryren arkitekturak natura imitatzen du Los Angeleseko Walt Disney Concert Hallean; Bilbon, aldiz, de- sindustrializazioaren ondorioen itxura hartzen omen du, nahiz eta bi eraiki- nak ia bereizezinak diren. Egia esateko, hiriaren errealtaterekiko eta historia- rekiko loturak obra sortu ondoren egin ziren, eta arkitektura-estilo hipertek- nologikoa eta deserrotua lekuko arki- tektura modernizatzaile gisara saldu zuten inolako lotsarik gabe.

Edonola ere, arkitektura dekonstruktivistaren adierazle nagusienetako bat da Guggenheim museoa. Arrazionalitatearekiko eta simetriarekiko aurkakotasuna ezaugarri nagusitzat dituen estilo honek 1980ko hamarkadan hartu zuen indarra. Baina forma eta estiloaz harago, arkitektura posmodernistaren korrante nagusietako bat garatu zuten Gehry, Zaha Hadid edota Eisenman arkitektoek 1988tik aurrera^[15]. Gizarte postindustrialaren eta historiaren amaieraren teorien «proiektzio espaziala»^[16] egin zuten arkitekto horiek. Helburu urbanistiko moderno zein funtzionalistekin guztiz apurtu zuten: arkitektura funtzionalista arrazionala, eraginkorra, ornamenturik eta luxurik gabekoa da, eta bizitzaren antolatzailea izaten saiatzen da. Arkitekto modernistak «erreformatzaile sozialtzat» zuen bere burua, garapenaren abangoardiatzat, alegia. Aitzitik, Venturi arkitektoak –arkitektura posmodernistaren hasierako sustatzaileak, 1972an *Las Vegasetik ikasiz* (*Learning From Las Vegas*) liburuaren autorea da– ideia hura errefusatu eta «aktibitate artistiko den neurrian, arkitekturaren eginbeharra ikusten den hori irudikatzea da, ez hura eraldatzen tematzea». Izan ere, arkitektura lengoia artistikoa da Venturirentzat, eta, gainera, artearen esfera prozesu sozialetatik at ulertzen du. Beste modu batera esanda, helbururik gabeko artearen alde egiten zuen, artea egite hutsagatik egitearen aldekoa zen.



**Errealitatearen
isla izatea du xede
estilo horrek
[dekonstruktibismoak],
ez metafora kritiko
bezala, baizik eta
dagoenaren imitazio
hutsal modura**

Bilboko Nerbioiaren ibaiertza parke tematiko bihurtzen bitartean –ontziola, zubi, Karola garabi eta guzti–, hiriaren mirarizko eraldaketa ez zen langile klasearen auzo industrialetara hasieran hedatu

Dekonstruktibismoak, beraz, proiektu modernoa alboratu eta modernitatearen ziurtasunak eta identitateak desegitea zuen helburu. Horretarako, kontzeptu unibertsalei eta pentsamendu arrazionalari uko egiten zien, kapitalismo zatikatzaile eta polarizatzailearen eta erreferenterik gabeko garaia isla baitziren. Ondorioz, arkitektura dekonstruktibistak fragmentazioa eta koherentzia eza islatzea zuen helburu, Mendebaldeko pentsamenduaren kategoria eta egiak deseginak ziren eta. Bestela esanda, errealtatearen isla izatea du xede estilo horrek, ez metafora kritiko bezala, baizik eta dagoenaren imitazio hutsal modura.

Kapitalismoaren garaipenaren eta historiaren amaieraren teoriaren garaian, posmodernismoak errealtatea eraldatzeko proiektuak hondoratzen zituen. Arkitekturak, horrela, ez zuen bera «inguratzen zuena»^[17] eztabaidatu behar, hots, errealtate soziala ez zen bere ardura. Eta, arkitekturaren forma artistikoa garatzea helburu bakarra zenez, «arkitektura helburu komertzialetara bideratzea zen aukerarik onena. Kontsumoak –eta ez ekoizpenak– hiriaren formaren adierazpenaren erdigunea izan behar zuen». Modu horretan, aipatutako arkitekto dekonstruktibisten obrak monumentalak, bereziak eta, maiz, kulturarako zein kontsumorako eraikitako espazioak izan ohi dira. Baina dekonstruktibisten espazioen erabilgarritasuna edo edertasuna baino gehiago, politikari, instituzio, arkitekto zein urbanistentzat irudia da azpimaragarria, eraikinek txertatzen duten marka, alegia. Hiria «mapan kokatzeko» gaitasuna da balioesten dena, hau da, turismoa erakartzeko eta espekulaziorako aukerak irekitzeko gaitasuna. Eisenmanek berak onartu izan duen bezala, arkitekto dekonstruktibistek «gainazal apaingarri bihurtu dute arkitektura», eta estilo horrek «publiko pasibo batek kontsumitzeko errazak diren irudiak gero eta ohikoagoak diren neurrian, orduan eta garrantzi handiagoa hartzen du».

Baina arkitektura dekonstruktibistaren aplikazioak ez luke arkitekto estatubatuarra harritu behar. Nazioarteko lan banaketa berriari egokitzeaz gain, desindustrializazioari ere aurre egin behar zioten hiriek jo zuten arkitekto horiengana, eta, oro har, hiriaren itxuraldatzea zuten helburu nagusi. Bilboko eraldaketa urbanistikoa ez da salbuespena eta inflexio puntu izan ziren Guggenheim museoaren zein metro sarearen eraikuntza. Hurrengo urteetan hainbat izan ziren eraldatu eta berreraiki ziren gunek, betiere sinadura famatuek sostengaturik: Norman Foster-en metroa eta Arte Ederren Museoa, Frank Gehryren Guggenheim museoa, Calatravaren aireportua eta zubi zuria, Zaha Hadiden Deustuibarra berria –irla bilakatu dute–,...

Bilboko Nerbioiaren ibaiertza parke tematiko bihurtzen zen bitartean –ontziola, zubi, Karola garabi eta guzti–, hiriaren *mirarizko* eraldaketa ez zen langile klasearen auzo industrialetara hasieran hedatu. Orokorrean, 90eko hamarkadan askotariko makroproiektuak eraiki baziren ere, horiek eredu zatikatua ezaugarri zuten –80ko hamarkadako joera urbanistikoei jarraituz–, baina polarizatzaileak ere baziren: beste balio bat emateko prozesua burutu zitekeen leketan –Abandoibarra, kasu– inbertsioa izugarria izan zen, baina erdigunean ez zeuden auzoek –Otxarkoaga, Saninazio, Errekalde...– edota Ezkerraldeak ez zuten urte horietan aldaketa esanguratsurik izan. Hitz gutxitan, hiriaren polarizazioa handitu zen; izan ere, krisiak Ezkerraldeko auzo industrialak hiriburua baino gogorrago kolpatu bazituen ere, bigarrenak jaso zuen inbertsio handiena. *Mirariaren* distira krisiaren ekaitz ilunak estaltzen zuen langile auzoetan. ●

ERREPORTAJEA



BIBLIOGRAFIA

[1,2] Mattick, Paul (2012).
Crisis & Teoría de la crisis.

[3,4,5,6] Arizkun, Alejandro;
Franco, Helena eta Etxebarria,
Goio (2002). *Euskal herriko
ekonomia eraldaketa
sozioekonomikoa europako
batasuneko integrazio-prozesuan.*

[7] Expansión (2023).
datosmacro.com

[8] Eskorbuto (1986).
Cerebros Destruídos.

[9,10,11,13] Rodriguez, Arantxa
(2002). *Reinventar la ciudad:
milagros y espejismos de la
revitalización urbana en Bilbao.*

[12] Larrea, Andeka eta Gamarra,
Garikoitz (2008). *Bilbao y su doble.*

[14] Terán, Fernando (1996).
Evolución del Planteamiento
Urbanístico (1846-1996).

[15] Arkitektura
dekonstruktivistaren esposizioa
New Yorkeko Arte Modernoaren
museoan egin zen, 1988an.
Estiloaren gauzatzearen
hastapena izan zen.

[16,17] Agulles, Juanma (2014).
*La tentación del vacío. Ciudad
y arquitectura posmoderna.*

Argitalpena
2023KO UZTAILA
EUSKAL HERRIA

Koordinazioa,
erredakzioa
eta diseinua
**GEDAR LANGILE
KAZETA**

Web
GEDAR.EUS

Sare sozialak
TWITTER ETA
INSTAGRAM
@ARTEKA_GEDAR

Kontaktua
**HARREMANAK@
GEDAR.EUS**

Harpidetza
**GEDAR.EUS/
HARPIDETZA**

Edizioa
**ZIRRINTA
KOMUNIKAZIO
ELKARTEA**
AZPEITIA

Lege gordailua
SS-01360-2019

ISSN
2792-4548

Lizentzia





arteka